

Sei artistaren kontzertuak Lemoakustik Festen

Arratiako Musika Eskolako ikasleak, Jon Moma, Lorelei Green, Maria Vaquerizo, Aimar eta The Last Hidden Fox Lemoan izango dira hilaren 11n, Kotxepin Kultur Etxearen atzeko landan edo lorategian kontzertuak eskaintzen. Lemoakustik Fest Lemoako Kultura eta Memoriaren Astearen barruan antolatuten dau Udalak. urtero, inguruko kantautore edota musika lasaia egiten daben taldeek euren soinuakaz bete dagien Lemoa egunez. **20. orrialdea**

LEMOAKUSTIK FEST

MAIATZAK 11 KOTXEPIN KULTUR ETXEA

2024


San Isidro, Zeanuriko baserri jaia

Ganadu azoka, baserriko produktuena, idi-probak, euskaldun identitatearen gaineko berbaldia, pelota partiduak, euskal jantzak, erromeria, gaztai eta artile tailerrak, herrikirolak... desagertzeaz baina bizirik dagoan baserriar bizimoduak hartuko dau Zeanuriko erdigunea hilaren 11n, zapatuan, eta 15ean, San Isidro egunean.

Behiak, behorrak, ardiak, ahuntzak, astoak... sasoi baten lanerako ziran abereak egongo dira ikusgai eta ederrenak sarituko ditue. Ortuariak eta baserriko beste produktu asko be egongo dira salgai, herriko txistularien musikeak girotuta. **12. eta 13. orrialdeak**



EAJ-PNVk atera ditu boto gehien EAEn, Arratia, Ubide eta Zeberion EH Bilduk



Aprilaren 21eko Euzko Legebiltzarrerako hauteskundeetan, EAJ-PNVk eta EH Bilduk, 27na jarleku lortu dabez; PSE-EEK 12; PPk 7 eta Sumarrek eta Voxek bana. Arratia, Ubide eta Zeberioaren botoak. **7. orrialdea**

AREATZA/ZEBERIO

Areatzako Karpo auzoan eta Zeberioko Santa Kurtzen, jaiak

Maiatzeko lehenengo astegienean jaiak ospatuten dira Areatzan eta Zeberioko Santa Kurtzen. Karpoko jaietan ganadu azokea egongo da eta Santa Kurtzen elorri zuria bedeinkatuko dabe. Ha-ta guzti be, tradizionotik harago, jente guztiarentzako egitarauak prestatu dabez auzootan. **5. orrialdea**

ARTEA

Lurraldearen gaineko topaketak egingo ditue maiatzean Artean

Arteko Herriko Bentak, lurraldea ardatz daukien kultura, arte eta kritika sozialeko topaketak antolatu ditu maiatza osorako. Lehenengo hamabostaldian, besteak beste, baserriaren gaineherearen gaineko mahai-ingurua eta Fermin Muguruzaren dokumentala egongo dira. **9. orrialdea**

ZEANURI

Maiatzaren 5ean izango da Zeanuriko Erroten XVII. Ibilaldia

Hamazazpigarren edizino honetan, ibilbideak, 4 kilometro gitxiago izango ditu; ibilbide luzeak 14 km eta laburrak 7 km, hain zuzen be. Ibilbidean zehar zazpi erroten ondotik pasauko dira ibiltariak eta hirutan, Errotabarrin, Ibartutxin eta Olabarrin, sartu-urtena egiteko aukerea izango dabe. Zeanurin, ezetuten diran edota han-hemenka azaltzen diran errota edo erroten errastuak, guztira hamazortzi dira, danak hidraulikoak. Horreetako batzuk ikusteko aukerea izango dabe partaideek. Hitzordua, herriko plazan da, goizeko 09:00etan. **10. eta 11. orrialdeak**

Literatura txokoa

100 PREGUNTAS QUE CAMBIARÁN TU VIDA EN MENOS DE UNA HORA

Liburu mota desbardinak irakurtea gustetan jatan aldetik, eta gustuko dodana gomendatutea daukadanez afizino, gaurkoan liburu berezi batez nator.

Ez dozu liburategietan azken argitaratutakoak batera aurkituko. Baina garaian garaiko guztia irakurteko denporarik ez daukagunez, altxor asko ixten doguz deskubridu barik. Eta hau horreetako bat izan da niretzat. Igual zuretzat be bai. Beraz, argitara dakart oin dala hamarkada luze bat idatzitako liburu (tamainuz) txiki hau.

Izan be benetan laburra da obra hau. Horrek be badauka bere alde ona gaur egungo bizimodu honetan, sensazioa daukagu denporea falta jakula

danerako eta. Ba, ez daitela atxaki bihurtu denpora faltea liburu bat irakurteko.

Esan dodan moduan, liburu desbardin batez nator. Goazen ba harira.

Bere izenburuak dinoan moduan, *100 preguntas que cambiarán tu vida en menos de una hora*, bost ataletan banandutako galdera liburu bat da.

Eta, zer dauka ba berezi galdera liburu batek? Askok. Ez dira eta edozein galdera. *Coach* nazan aldetik, ondo dakit galdera mota batzuek beste batzuek baino balio handiagoa daukiela personak aurrera bultzatuteko, eta Raimon Samsó idazle eta *coach* handiak ondo aukeratu dauz galderok.

Bizitzan aurrera egiteak garran-

tzia handia dauka, baina norabide zuzena hartuteak oindino handiagoa, esango neuke.

Nora joan gura dogu, nogaz eta zelan egin gura dogu bide hori.

Galdera asko dagoz hiru kako horreen ostean. Eta norbere burua ez badogu interrogatorio sakon batera eroaten, askotan itsu-itsuan egiten dogu aurrera, inertziatz, olatu gainean joaten itxiz.

Aukera desbardinak daukaguz bizitzan aurrera egiteko, hiru aitatuako dodaz: Lehenengoa, ur gainean etxun eta begiak itxita noraezean gelditu. Hainbatera helduko gara, baina nora? Ezin jakin. Bigarrena, ardi multzoan sartu eta nora goazen ikusi eta jakin barik, oinez segidu besteen


atzetik joanda. Hemen be, ezin jakin zein dan helmugea. Eta hirugarrena eta politena, hegoak zabaldu eta hegan egin. Aurrean, alboetan, atzean, behean eta goian zer daukagun ikusi eta ondo aukeratu norabidea, gura dogun lekura helduteko.

Ba horretarako, txoritxo, hasi gaitzan galderak egiteagaz. Egin eta erantzun, jakina.

Ze galdera baina? Samsók aurkeztutako 100 galdera honeek, hasikera ederra dira.

Hegaldi on, irakurle!

Nerea Goioaga



Raimon Samsó

100 preguntas que cambiarán tu vida en menos de una hora

Ediciones Obelisco, 2007

80 orrialde

TELEFONO INTERESGARRIAK

Larrialdiak

Galdakaoko Ospitalea 94 400 70 00
SOS DEIAK 112

Guardiako farmaziak

09:00etatik 22:00etara

Apirilaren 29tik maiatzaren 5era

Traver. Bedia. J.A. Agirrerren enparantza z/g
Tel.: 94 631 39 50 eta 649 686 305

22:00etatik 09:00etara

Sarasketa. Amorebieta-Etxano.

Maiatzaren 6tik 12ra

Ibarrola. Zeanuri. Arregia kalea 1
Tel.: 94 673 93 95 eta 620 262 937

22:00etatik 09:00etara

Iruarizaga. Amorebieta-Etxano.

Maiatzaren 13tik 19ra

Goikoetxea. Dima. Ugarana 33
Tel.: 94 673 70 54 eta 619 524 057

22:00etatik 09:00etara

Gutierrez. Amorebieta-Etxano.

Zeberioak ez dau guardianik egiten.

Urte osoan. 22:00etatik 09:00etara

Gometza, Ana. Francisco Kortabarria 2. Basauri.

Medikuak

Arantzazu: 94 600 74 63

Artea: 94 673 92 11

Areatza: 94 631 71 52

Bedia: 94 631 34 13

Dima: 94 680 19 74

Igorre: 94 600 74 63

Lemoa: 94 631 31 16

Ubide: 945 45 03 61

Zeanuri: 94 673 91 49

Zeberio: 94 648 01 85

Udaletxeak

Arantzazu: 94 631 56 89

Artea: 94 673 92 05

Areatza: 94 673 90 10

Bedia: 94 631 42 00

Dima: 94 631 57 25

Igorre: 94 631 53 84

Lemoa: 94 631 30 05

Ubide: 945 45 03 22

Zeanuri: 94 673 91 46

Zeberio: 94 648 10 79

Arratiako Udalen

Mankomunitatea 94 631 17 17 /

mankomunitatea.arratia@bizkaia.org

Gorbeialde Landa

Garapenerako Alkartea

94 631 55 25 / gorbeialde@gorbeialdea.com

Areatzako Parketxea 94 673 92 79

IKE 94 673 62 51 / kulturetxea@igorre.net

Euskotren 94 433 33 33 / euskotren.eus

Areatzako Notarioria 94 673 92 26

Errota Fundazioa

688 854 543 / info@erota.eus

Arratiako Musika Eskola

94 631 73 52 / www.arratiakomusikaeskola.eu

Bizkaibus 94 612 55 55

3917 linea. Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Zeanuri

Bilbotik. Lanegun eta zapatuetan: 06:15etik 22:15era ordu. Jaiegunean orduo 07:15etik 22:15era.

Zeanuritik. Lanegunetan: Lehenengoa 05:00etan. Ordu erdiro: 05:15etik 06:45era.

Orduo: 06:45etik 21:45era. Azken zerbitzua 22:00etan. Zapatuetan: Lehenengoa 05:00etan. Orduo: 05:45etik 21:45era.

Jaiegunean: 07:45etik 21:45era ordu.

3911 Linea. Bilbo-Galdakoa-Ospitalea-Lemoa-Durango-Elorrio

Bilbotik. Lanegunetan: 07:00etatik 22:00etara ordu. Zapatu eta domeketan Durangoraino.

Elorriotik. Lanegunetan 06:45etik 20:45era ordu.

Durangotik. Lanegunetan: 07:10etik 21:10era ordu. Zapatuetan: 06:30etik 21:30era ordu. Jaiegunean: 07:30etik 21:30era ordu.

3912 Linea. Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Durango-Ermua-Eibar

Bilbotik. Lanegunetan: 06:30etik 22:30era ordu. Jaiegunean: 07:30etik 22:30era ordu.

Eibartik. Lanegunetan: 06:00etatik 21:00etara ordu. Zapatuetan: 06:20tik 21:20ra ordu.

Jaiegunean: 07:20tik 21:20era ordu.

3925 linea. Bilbo-Lemoa-Otxandio-Ubide

Bilbotik. Lanegun, zapatu eta jaiegunean, Otxandiora: 06:45etik 20:45era ordu. Ubidera: 06:45etik 20:45era bi ordu behin.

Ubideetik. Lanegun eta zapatuetan: 06:45etik 20:45era bi ordu behin.

Jaiegunean: 08:45etik 20:45era bi ordu behin.

* 08:45ean, 14:45ean eta 18:45ean urteten diran zerbitzuak Barazaren gelditzen dira.

Otxandiotik urtekerak. Lanegun eta zapatuetan: 06:55etik 20:55era ordu. Jaiegunean: 08:55etik 20:55era ordu.

3927 linea. Bilbo-Lemoa-Zeanuri (autopistatik)

Bilbotik. Lanegunetan: 07:00etatik 21:00etara ordu. Zapatu eta jaiegunean ez dago zerbitzurik.

Zeanuritik. Lanegunetan: 07:00etan lehena, eta 08:15etik 21:15era ordu. Zapatu eta jaiegunean ez dago zerbitzurik.

3928 linea. Artea-Zeberio-Ugao

Zeberiotik Ugaora. Lanegun eta zapatuetan: 07:00, 08:20, 09:10*, 11:00; 11:45*, 14:10, 15:00, 16:10, 18:30*, 20:20.

*Basauriraino bakarrik.

Basauritik Zeberiora. Lanegun eta zapatuetan: 10:00, 12:45*, 19:20.

*Artearaino bakarrik.

Ugaotik Zeberiora. Lanegun eta zapatuetan: 07:20, 08:40, 10:20, 11:20, 13:05, 14:30, 15:30, 16:30, 19:40, 20:40.

Arteatik Ugaora. Lanegun eta zapatuetan: 06:50, 08:00, 14:00, 16:00.

Ugaotik Artea. Lanegun eta zapatuetan: 13:05, 15:30, 20:40.

Igorretik Ugaora. Lanegun eta zapatuetan: 07:55ean.

Ugaotik Igorrea. Lanegun eta zapatuetan: 07:20ean.

Zeberiotik Arrigorriagara. Jaiegunean: 08:10, 11:10, 14:10, 17:10, 20:10.

Arrigorriatik Zeberiora. Jaiegunean: 10:20, 13:20, 16:20, 19:20.

La Union 94 427 11 11

Bilbo-Gasteiz

Lanegunetan: Ubidekoak 09:15ean urteten dau eta Otxandioak 16:00etan. Zapatuetan: Ubidekoak 09:00etan urteten dau Bilbotik.

Jaiegunean: Ubidekoak 10:00etan urteten dau eta Otxandioak 18:30ean.

Gasteiz-Bilbo

Lanegunetan: Ubidekoak 09:00etan urteten dau Gasteizetik eta Otxandioak 10:30ean.

Zapatuetan: Otxandioak 10:30ean urteten dau Gasteizetik.

Jaiegunean: Ubidekoak 16:30ean urteten dau Gasteizetik.

Argitaratzailea: Zertu Kultur Elkartea. **Helbidea:** Herriko Plaza 24, 48142 Artea. **Tel.:** 94 673 90 13. **E-posta:** begitu@begitu.eus. **Webgunea:** www.begitu.eus. **Zuzendaria eta publizitate arduraduna:** Iñigo Iruarizaga. **Tel.:** 649 979 115. **E-posta:** inigoirua@begitu.eus. **Erredakzino burua:** Beatriz Azpiri. **Tel.:** 649 979 112. **E-posta:** beazpiri@begitu.eus. **Erredakzino arduraduna:** Asier Abrisketa eta Beatriz Azpiri. **Webgunearen arduraduna:** Asier Abrisketa. **Tel.:** 626 647 923. **E-posta:** asierabrisketa@begitu.eus. **Maketazinoa:** Beatriz Azpiri eta Iñigo Iruarizaga. **Banaketea:** Garbikuzi enpresa (Dima, Ubide, Zeanuri eta Zeberio), Asier Abrisketa (Igorre), Jokin Totorika (Arantzazu, Areatza eta Artea) eta Nerea Beitia (Bedia eta Lemoa). **Tiradea:** 7.300 ale. **Inprimategia:** Bidasoa inprimatzeko zentroa. **Facebook:** Begitu Aldizkaria. **Twitter:** @BegituEus **Instagram:** @begitu.eus



Aldizkariaren edukiaren eta diseinu grafikoaren egile-eskubideak Zertu Kultur Elkartearenak dira, baina partekatu daitezke *Creative Commons Aitortu Partekatu lizentziaren bitartez (CC-by-sa)*. Beraz, erreproduzidu, banatu, jente-aurrean komunikatu, eraldatu daitezke, beti be iturria aitatzuz eta egiletza aitortuz, eta baldintza horreen pean partekatuzeko.



Ale kopurua 7.300 / Lege gordailua SS-512/02 / ISSN zenbakia 1579-5519

Babesleak:



Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

ZEURE BERBEA

Zeure Berbea

Espazio hau irakurleentzako espazioa da. Irakurleak gura dauana adierazoteko lekua. Bialdu zuen kezak, eskeronak, hausnarketak, burutazioak edota ideak karta baten bidez eta erabili BEGITU beste irakurleei zuen ikuspuntua helarazoteko. Argitaratutako derrigorrezkoa da izen osoa, NA-ren zenbakia eta herria emotea.

Zeure Berbea hamar herritan entzungo da. Zeuk daukazu berbea. Entzuteko prest gagoz. Hauxe helbidea:

Zertu Kultur Elkartea
BEGITU aldizkaria
Herriko Plaza 24
48142 Artea
Edo, helbide elektroniko honetara bialdu zure gutuna:
begitu@begitu.eus

BEGITU ALDIZKARIA

Zure eretxia agertu gura badozu, Zeure Berbea atala zabalik daukazu. Ez da komenidu 15 lerro baino gehiago idazterik. Izena, telefonoa eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezker, BEGITUK eskubidea dauka horretarako. Gutunak hona bidali: begitu@begitu.eus helbidera.

Zirhika

ARTELATZ ETA TXARAKIN

Hitanoagaz hasteko aholkuak (XLVI). Kale berbakunea sustatu guran

OPORRAK

- Hi, zer **darabik** esku artean?
- Atlasa begiratuten **ñabik!**
- Atzera ikasten hasi **behok** ala?
- Kar, kar, kar... oporlekua topetan **ñabik** hi!
- Ia! Munduko ze lekutan pentsetan **habil?**
- Ba iparralderantza pensau be ez! **Etxoat** hotzminik pasau gura eta.
- Ekialde hurbilera be ez oin latz **parauok** asuntoa eta...
- Hara be ez!!
- Onena Kanarietara joatea **izingok!**

ERETXIA

Euskal komikia gaur

Komikia, danontzat ezaguna izan arren, ondino minoritario samarra da; zer esanik ez irakurle helduen artean eta euskerazko komikia bada. Izan be, Euskal Herria ez da leku egokia izan bederatzigarren arte deritxana behar lez garatzeko. Uri inguru ahula eta kultura, oro har, tradizionala eta askotan atzerakoia eukiteak ez ei dau horretan lagundu izan. Hamarkadetan bertan euki izan dogun komiki eredu bakarra Espainiakoa (eta Iparraldean Frantziakoa) izan da. Egia da 1980ko hamarkadaren bueltan euskal komikiak, euskerazkoak barne, loraldi ederra euki ebala. Baina, berau berandu ailegau zan, ze, 1990eko hamarkadan izandako aldaketa kulturelek komikiari krisialdi sakonean murgilduarazo eutsien. Zorionez, urte batzuk geroago komikiaren inguruan sortutako azpigenero barri batek, nobela grafikoak hain zuzen be, bultzada handia emon eutsan kili-kolo ebulan generoari. Harrezkero komikiak sormen eztandea bizi dauala esan geinke.

Gurean minoritarioa izatearen beste errazoi bat genero honeguzko doguzan aurrerexiei egotzi behar deutsegu. Asko eta asko dira komikia ume edo gazteenzat baino ez dala pentsetan dabenak, eta gainera, bakarrik be, dibertitzeko helburuz, beste sasoi bateko zorioneko *Mortadelo y Filemon* akorduan akaso. Gaur, ostera, ez dira gitxi betiko nobelek baino balio literarioa handiagoa daben komikiak, euki leikien balio estetikoak aitatu barik. Esan lez, batzuen ustez komikia Estatu Batuetako Marvel edo DC enpresa erraldioen superheroiarena (Superman, Batman, X men...) edota Japoniako manga (Dragoi bola Z, Final Fantasy...) da, eta ez dira ohartzen gaurko komikiak daukan aberastasunaz.

Edozelan be, euskerazko komikiak be loraldi barria bizi dau, argitalpen kopuruari jagokonez behintzat. Oin dala hamarkada



ALVARO RABELLI

Irakaslea

bat urtero hamar bat titulu argitaratzen ziran, gaur, ostera, hirurogei batz beste. Arrakasta horren seinale, esaterako, *Ni ez naiz Mikel Laboa* (Elkar, 2022) komikia dogu, igazko Euskadi Saria jaso ebana. Nazinoarteko komiki esanguratsuen itzulpenak be nabarmen emendatu dira, horra hor Astiberrik euskeraz kaleratu dauzan *Maus* (2022) eta *Persepolis* (2023).

Baina, "urun guztiak ez dira zuri" dinosku esaera zaharrak, bada, ustezko arrakasta horren atzean pentsetan dot sano egoera ahula ostenduten dala. Literaturan gabilzanok ohituea daukagu berau sistematzat hartzeako, sistema bat non, besteak beste, idazleek, irakurleek, argitaletxeek, kritikek eta ikerketa akademikoek batera parte hartzean daben. Beraz, euskal komikiak bete leiken sistemari erreparauta, atoan jaubetzen gara daukan ahuldadeaz. Ibili be, txiro, hankamotz samar ibiltzen gara arlo horreetan guztietan, egileen kopuruari eta euren kalidadeari jagokonez izan ezik.

Ez, hemen be sormena ez da arazoa, arazoa da ez daukagula irakurle askorik euskerazko komikiak leiduteko, oindino gitxiago helduen artean, berauek bestelako lanak, dirala nobelak, dirala olerkiak, lehenesten dabezalako. Irakurleak eurak be ez doguz komiki tradizio guztiei heltzeako formatuta. Eta hortxe hasten da gurrpil-zorua: irakurle gitxi bada goz, argitalpen eta argitaletxe gitxiago, eta kritikea eta ikerketea ezin abiatu.

Euskerazko komikiak bultzada handia behar dau, irakurri, landu eta konsumidu behar doguz, etxean, eskolan eta helduen irakurketa klubetan be bai, eta ez generoa bultzatze hutsagaitik, ezpada komikiak leiduz irakurzaletasuna, ahozotasuna eta gure ikuspegi estetikoak garatzen dogulako.



LUMATUTEN

IXONE AROMA
BARRENA

Liñuaren penak

Linoa ikusi dot loran, tente, bere lore txiki ederrez. Eta sasoi baten kantautako bertsoez gogoratu naz: *Kantatu dagiguzan, liñuaren penak...* Mogelek idatzi ebazan 1802an eta *Peru Abarka* liburuan argitaratu ziran ia 80 urte beranduego. Melodia Valentin Zubiaurrek konposatu eban eta gorularien kantu hau ei da errege kaperako konpositore izandakoaren lanik interpretatua.

1886ko Lore Jokoetan, Durangoko konparseak saria eskuratu eban gorularien kanteagaz, baina hainbat urtez desagertuta egon da jantzarion errepertorioetik, harik eta 1973an lurretako jantzariek Iñaki Irigoien laguntzeagaz berreskuratu eben arte.

Linoa ikusi dot loran, eta garai bateko nesken pena eta nekeak azaldu naz. Hazia erretetik alondarea josi arteko ardura euren zan oin dala ez horrenbeste: linoa zuztarretatik atera, sikatutun itxi, haziak kendu,

erreka eroan, larrainean eguzkitan zabaldu, linarriaz zapaldu, ezpatatu, suhastu, orraztu, goruetan hari bihurtu, ehuna egin...

Ez dot nik orduko langintza berreskuratuteko aldarrikapenik egingo, baina gehitxoago arduratu beharko gindukez soinean daroagunak. Nondik datoz jantzen doguzanak? Nok egindakoak dira? Zein materialegaz? Txina zein Bangladesh-eko ume eta andrak, egoera ezin prekarioagoetan dabiz guretzako eropak josten, gehienak sintetikoak. Jasangarri, eko, bio, *organic*... izatetik urruntxo.

"Modaren industriak munduko karbono-emisioen %10 eragiten dau", "ehungintzak kutsatutun dau munduko ur edangarriaren %20". Datuak argiak dira: desazkondeaz eta transizino energetikoaz hainbeste berba egiten dan garaiotan, moda azkarra konsumidutari itxi behar geunskio behingoz.

Konsumitzaileok badogu ardura, baina nok ipiniko deusaz mugak beharginak esplotetan dauzanari? Nok guztion lur eta urak kutsatzen dauzanari? Oi Pello, Pello, gorbatadun bat baino gehiago ipiniko neuke linoaren langintzan... Hori bai izango litza tekela eredu jasangarria.

ZERTZEAN



MAITE ARRIZABALAGA

Ikerrek bere atzigiaren mamurrak jaten zituen, kola lapurtzen zion jateko eta bat-batean atzetik gogor besarkatzen zuen lanak egiten zituen bitartean. Jonek hamaika aldiz entzuna zuen: "Iker berezia da, mundua bizi eta ulertzeko bere modua dauka, gozotasunez zaindu behar dugu, pazientzia izan behar duzu..." bla, bla, bla. Politak ziren oso berba horiek, baina eskolan haren ondoan egotea beste gauza bat zen. Sarritan pentsatu izan zuen arren, ez zen ausartzen irakasleari lekuz aldatzea eskatzen; persona izugarri txarra zela pentsatuko zuten denek.

Egun hartan Jone pozik zegoen. Baseri eskola batera zihoazen egun pasa eta horrelakoetan Iker bere irakaslearen ondoan egoten zen txango guztian zehar. Behingoz, lagunekin lasai egon ahal izango zen. Hara iritsitakoan, denak hasi ziren kexatzen lokatza zela eta. Jonek ez zuen jarrera hori ulertzen, izan ere, ikasle guztiek bazekiten nora zihoazen. Aurpegi guztiek islatzen zuten nazka Ikerrenak izan ezik. Ba-

satzen gainean saltoka zebilen etengabe irribarre eginez. Egoera hark barregura eragin zion Joneri. Benetan, Iker zen ingurune hartan gozatzeko gai zen bakarra, bera bezala.

Bazkalorduan handik hurbil zegoen pagadi batera joan ziren askaria hartzera. Denek jaten zuten otartekoa gustura. Denek, Ikerrek izan ezik. Haserre eta urduri zirudien. Buruarekin ezetz egiten zuen, behin eta berriro, ogiaren punta nabarmenduz. Irakasleak ez zuen ezer ulertzen, ez zekien zelan lagundu. Orduan, Jone konturatu zen; Ikerrek ez zuen ogiaren kuskurra gustuko, berak bezala.

Une horretan konturatu zen; beharbada, Iker eta bera ez ziren hain ezberdinak finean. Akaso, gauza batzuetan uste baino antzekoagoak ziren. Agian, gehiago behatu beharko zuten hain antzekoak ziren edo ez jakiteko. Agian, Iker ez zen berak uste bezalakoa. Agian, pertsonak epaitu gabe ezagutzen ikasi beharko zuten.

* Zertzean atalean argitaratzen doguzan testuak, literarioak edota sormenekoak diranez, heltzean diran moduan argitaratuko doguz eta ez doguz gure euskera eredu ipiniko.

Tarte hau zeuretzako be dago zabalik, holango sormen-lanak BEGITUN argitaratu gura izan ezker, eskatu egiguzuz argitaratzeko baldintzak begitu@topagunea.com helbidean.

BEGI TXINDORRA

! Garrantzitsua da osasun mentalaz berba egitea? Zeintzuk dira buru osasunak dituan erronkak? Zer egin daikegu guk?". Holango gaien inguruan egin genduan berba Arratia BHIko ikasleok eta Bizi Igorre Lagunkoia kideek adinarteko zineforumean.

Martiaren 26an izan zan ekimena, eta adin desbardinatoko pertsonak alkartu ginan: 14-15 urteko 10 ikasle, 2 irakasle eta Bizi Igorre Lagunkoia-ko 8 jubilau, Marakako teknikari baten gidaritzapean. Horretarako, alde aurretik, talde bakotzak, Ur Handitan programako *Buru Osasuna: Lehen eta orain* dokumentala ikusita geunkan, eta bertan aitaturako gaien inguruan hausnartu genduan jakintza, balio eta esperientziak alkar trukatzuz.

Nagusiek kontau eben lehen ez zala gaiari buruz barbarik egiten, eta zorrotzat hartzean zirala gaixotasun mentalak daukiezan pertsonak. Gazteen esanetan, gaia normalizatu dago oin, baina oindino estigma asko dagoz lotseagaitik eta bildurragaitik. Erronka nagusizat identifikatu dogu persona honek sufriduten daben bakarkadea eta bazterkeria, eta urtenbide moduan profesionalen zein gizartearen laguntza iruditzen jaku beharrezkoa, adibidez, ikastetxean gaia lantzea.

Saioan eroso sentidu ginan nork bere esperientzia eta eretxiak partekatu ahal izateko; horregaitik, saioaren balorazio orokorra sano positiboa izan zan. Mota honetako ekintzak, komunitatea indartzeaz gainera, gai gatak gizarteratu eta honeen inguruko gogoetak partekatzeko tresna interesgarriak dirala uste dogu.

Arratia BHIko DBH 3Dko ikasleak



Gorosti Lorategien Diseinu eta Gauzatzea
Ureztaketa instalazioa
Mantenua eta Inausketa

LORAZAINTZA

Bidosola Industrialdea E2 Pab. 48.142 Artea
Tel: 94 673 96 34 Faxa: 94 673 96 88
gorosti@gorostisl.com

BEER & EDARIAK
Guillermo 659 48 28 39

Fernando 699 29 67 17 Arkaitz 677 46 40 91
Eduardo 647 72 96 24 Golder 666 58 20 06

Pozuetz poligonoa, 10 LEMOA • beeredariak@gmail.com

agoa Ortodontzia
Implanteak
Estetika

hagin klinikak

Marina Urigoitia Aldekoa
Odontologoa

Bidebarri 1. behea
48140 Igoite-Bizkaia
T. 94 631 50 39
Iñigoite Zerbitzu 101
R.P.S. 31/06

AREATZA

Areatza 1338 udal sozietate publikoak, mobikortasun arazoak dituen personentzako alokairuan esleituko ditu etxebizitza bi

Erredakzioa

Etxebizitzak Goikokale 14-16 A behea eta B behea dira eta Areatza 1338k esleitu gura ditu 70 urtetik gorakoentzat edo mobikortasun arazoak dituenentzat. Eskerak Areatzako udaletxean aurkeztu daitezke lehenengo esleipenerako hilaren 10era arte. Halanda be beharizana daukan edozein momentutan egin

leike eskaerea.

Etxebizitza horreetako bat alokairuan hartu ahal izateko derigorrezko baldintzak, Areatzan errolatuta egotea, 70 urte baino gehiago edo mobikortasun arazo izatea eta etxebizitza irisgarri ez izatea dira. Hileroko alokairu kuota 450 eurokoa izango da, komunitadeko gastuak barne. Kuota hori urtero igongo da aurreko urteko KPlaren arabera.



ARRATIA

Bideon Arratianek ordutegia luzatu dau

Erredakzioa

Bideon Arratian eskaerearen arabera 65 urtetik gorako eta unibersidadeko gazteentzako garraio zerbitzuak ordutegia luzatu dau. Holan, 65 urtetik gorakoentzako zerbitzua 08:00etatik 14:00etara bitartean emongo da eta unibersidadeko gazteentzako taxi partekatutako zerbitzuak, klaseetako sarretara eta urteerretara egokitutako joan-etorriko ordutegi barriak ditu.

Unibersidadeko taxia 06:45ean eta 07:30ean, abiatuko da Zea-nuritik goizeko txandetarako eta eguerdiko 12:30ean eta 13:45ean arrastian matrikulautako ikasleentzat. Leioako UPV/EHUko fakul-

tadeetatik itzulera 13:45ean, 15:15ean eta 18:45ean izango da, eta ordu laurden geroago ikasleak biltzeako geldialdia egingo da Bilbon.

Zerbitzuak, ikasleak Bizkaibuseko geraleku batera edo Euskotrenek Lemoan dagoan geralekura erroteko aukerea be emoten dau, unibersidade campusetara hurreratzen dituan garraio publikoagaz lotzeako. Kasu horretan, bidaiaren kostua euro batekoa izango da, beste bidaiak 1,5 euroko prezioa daukie.

Bizkaiko Foru Aldundiak 900.000 eurogaz finanziau dau proiektuaren fase pilotua.



ZEBERIO

Kontzertuak izango dira protagonista Santa Kurtze jaietako zapatu gauean

Saso baten, maiatzaren 3an elorri zuria bedeinkatu eta solan ipinten zan uzta ona izateko.

19:30ean, txokolatea.
20:00etan, kontzertuak: Ilentia, Durundue, U7, Seveelrio, Satan Kurtze. Ostein, DJ Matxinada.

Erredakzioa

Santa Kurtze ermitan mantentzen egiten da ohitura eta mezea eta erramu bedeinkapenagaz emongo deutsee hasikerea Santa Kurtzen STAK Jai Batzordeak antolatutako auzoko jaiei.

Baina tradiziotik harago, sinismentan, lanbide eta edade ugariatako auzokoak alkarregaz egon eta ondo pasetako jai egitaraua presatu dabe auzoan: kontzertuak, Tortilla Txapelketea, jantzak, herrikirolak... ez dira faltauko maiatzeko lehen astegienean. Zapatu gauean, Ilentia, Durundue, U7, Seveelrio eta Satan Kurtze taldeek joko dabe eta ostein DJ Matxinadak ipiniko dau musikea gaua luzatuteko.

Maiatzak 3, barikua


12:00etan, mezea eta erramu bedeinkapena; ostein barauskarria.
18:30ean, jaien hasikerako txupina.
18:45ean, Tortilla Txapelketan izen-emotea.
20:00etan, tortillen aurkezpena.
20:15ean, jantza plaza.
21:00etan, sari banaketea eta ostein parrilladea eta musikea.
22:00etan, suzko zezena.

Maiatzak 4, zapatua

10:30ean, mendi ibilbidea Santa Kurtzetik hasita.
13:00etan, herrikirolak.
15:00etan, bazkaria norberak eroandakoagaz. Edaria, ogia eta kafea batzordearen esku.
17:30ean, kontzertua: Mani eta Iker.
18:00etan, jolasak eta txapelketak.

Maiatzak 5, domekea

12:00etan, desmontajea. Ostein konbidaduen bazkaria norbere etxean.



AREATZA

Bere alderik baserritarrena erakutsiko dau Areatzak Karpoko jaietan

Ekoizleen eta Ganadu azokeak, giza-proba desafioak eta kalejirek, besteak beste, ipiniko dabe fokua Arratiako uribildu bakarraren alderik baserritarrenean.



Lehiaketakaz. Familia alkarreak, taloak egingo ditu domekan.

Egitaraua

Maiatzak 4, zapatua
Paella eta Gisadu Lehiaketak erreko pasean.
09:30ean, Upo Galapan mendi lasterketea.
12:30ean, Areatzako Banda eta Bitartean Folk Taldea.
14:00etan, Paella eta Gisadu Lehiaketen aurkezpena udaletxeko arkupetan.
15:00etan, bazkari herrikoa.
17:00etan, plastikozko ahate lasterketea errekan.
18:30ean, Giza proba desafio Goikokalen. Herritarren talde misto bi alkarren kontra.
20:00etan, Kittu taldeagaz kalejire herriko kaleetan zehar.

Maiatzak 5, domekea

10:00etatik 14:00etara, Ganadu eta Ekoizleen Azokea plazan.
13:00etan, kalejire Eingo taldeagaz herriko kaleetan zehar.
14:00etan, azokearen amaiera eta zozketea.

Erredakzioa

Lamino Kirol Klubak eta Udalak antolatutako Areatzako Upo Galapan 18 kilometroko mendi lasterketearen bigarren edizioa be jokatuko da zapatuan. Maiatzak 4 eta 5eko astegienean ospatuko

dira Karpoko jaiak.

Musikari jagokonean, Areatzako Bandak eta Bitartean Folk Taldeak animauko dabe zapatuko eguerdia eta zapatu arrastian eta domeka eguerdian, kalejirak egongo dira. Gastronomia be ez da faltauko Paella eta Gisadu

ZEANURI

Arratiako Guraso Elkartearen III. Topaketa egingo da Zeanurin hilaren 4an

Erredakzioa

Arratiako eskola guztietako sei guraso alkarteak, Zeanurin batuko dira maiatzaren 4an, sarea sendotu eta jai giroan, euren aldarrikapenak plazaratzeko. Bertan, gura daben gurasoek, Altxa Burua Arratiak prestatutako umeen eskuko telefonoaren erabilerearen gaineko konpromiso-dekalogoia sinatuko dabe. Konpromisoan, seme-alabei smartphonea emoteko gixieneko adina zehaztuten da.

Egunari hasikerea emoteko, guraso alkarteek ibilalditxoa antolatu dabe 11:30ean Undurragak presara, "edade guztietarako ibilbidea da, hau da, ume txikiak daukientzako eta karroa eroan gura dabenentzako" aproposa



Gotzone Arrizabalaga antolakuntzakoaren arabera.

Igorreko eskolako 6. mailako bertsolaritza taldekoek emongo deusie hasikerea topaketari, 13:30ean, euren bertsuakaz. Bitartean, institutuko Batxiler 1.engo ikasleek hamaiketakoak salduko dabez, ikasbidairako dirua jasoteko.

Altxa Burua Arratia proiektuaren sinatze ekitaldia 13:45ean izango da plazan. Konpromisoa ez dabe alkarteek sinatuko, gurasoek baino. "Banaka sinatuko da. Modu personalean hartzean dan konpromisoa da-ta". Bazkaria plazan izango da, 15:00etan. "Aurten baba-jana egingo da, bertan kozinako da bertoko produktuakaz".

Jolasak eta merienda egongo dira gero, eta 19:00etan, Berriztu taldeagaz erromeriak ipiniko deutso amaierera egunari.

ARRATIA, ZEBERIO

Makatzak talde ekologistek, Feroskana parke eolikoaren proiektua gelditzeko eskatu dau

Zeberio, Arantzazu, Usansolo, Ugao, Arrigorriaga, Galdakao, Bedia eta Igorreko lurretan, 27 MWko sortzeako sei aerosorgailuko parke eolika egiteko obren baimen administratiboa eskatuta dauka

Ferosca Wind S.L.-k. Makatzak Arratiako Ekologistak taldeak Bizkaiko Industria Administrazio Lurralde Ordezkaritzari baimena ez emoteko eta tramitazioa gelditu arazoteko eskatu deutso.



Erredakzioa

Lau errazoi azalduten ditue horretarako. Lehenengoa, proiektua ez dagoala Lurralde Planaren Hautatutako Lokalizazioetan kokatuta. Oindino gehiago, eremu ez eoliko bateri eragiten deutso. "Europar Batasuneko funtsetatik dirua jaso guraren ondorioz, 2 km-tik gorako edozein mendi lerroetan proiektu eoliko erraldoiak eskatu dira; Lurralde Historikoaren Hautatutako Lokalizazio-zonetan egon ez, edo baliabide eolikoaren ikuspuntutik egokiak izan ez arren. Hori dala-ta, *ad hoc* sortutako mikroenpresak agertu dira, gizarte-kapital oso txikiagaz. Euren helburua, lurraldea eta administrazio-emakida izapidetzea da, ondoren haregaz espekuletako".

Errentagarritasun eza eta eredu energetikoaren gaineko eztabaida baten beharra

Makatzak taldearen arabera, gainera, Feroskana parke eolikoak ez leuke errentagarritasun eko-

nomikorik izango. Izan be "eskatutako kokalekua ez dago baliabide gordin positiboa daukien kokalekuen mapan, eta ez da tokian tokiko neurketa erreletan oinarritzen; beraz, ezin da errentagarritasun energetiko azterketa fidagarrik egin".

Parke eolikoari baimen administratiboa ez emoteko hirugarren errazoi da, ez dituala beteten Igorreko (Arratia) Eremu Funtzionaleko Lurralde Plan Partzialaren aldaketa ez-funtsezkoa behin-behinean onesteko dekretu eta akordioak.

Eta amaitzeko, eredu energetikoaren gaineko eztabaida bat eskatzen dabe ekologistek. Izan be, "Espainian, elektrizidade sorkuntza, konsumoa baino askoz azkarrago hazi da" eta "oligopolioak kontrolatan dituan industria instalazioen bidezko sorkuntza elektriko masiboa, oligopolioaren interes ekonomiko eksklusiboa ostenduteko erabilten dan guzur bat da" euren esanetan.

ZEBERIO

Siziliako ikasleei inguruak erakusten dabiz Zeberioakoak

Erredakzioa

Aurten Erasmus+eko proiektua Kataniako (Sizilia) Lentini herriko Guglielmo Marconi eskoleagaz egiten dabiz Zubialde eskolako 6. mailako ikasleak. Hori dala-ta, Zeberioako 15 ikasle egon ziran Sizilian apirilaren 13tik 19ra, eta Siziliako ikasleak, apirilaren 28an etorri ziran Zeberiora, maiatzaren 4ra arte. Hemen dagozan bitartean, inguruko naturguneak erakutsiko deutseez.

Siziliako ikasleek Zeberioe Katania eta inguruak erakutsi eutseezan moduan, hemen be leku interesgarri ugari bisitauko ditue ikasleek: Ermitabarriko museoa, Gaztelugatxe, Zumaiako flysch-a eta Mutrikuko olatu planta, besteak beste. "Aurtengo proiektuan, naturguneak aztertu dabez eta bisitan datozenean ikasleek emongo dabez emon beharreko azalpenak ingelesez. Horretarako naturguneen lanke-tea egin da eta materialtxo bat be sortu da eurei eskura emoteko" azaldu deutso BEGITURI Nuria Kort Zubialde eskolako zuzendariak.

Izan be, Erasmus+ proiektua oinarritzat hartuta, ingelesa landuten dabe 6. mailako ikasleek eta Iza-kun Garrote, ingeleseko irakaslea da proiektuaren koordinatzailea. "Ikasleentzako oso motibagarria da. Hor badago bisita bat: familiar-tara etorten dira eta familiar-tara joaten dira. Familiak oso pozik egon



dira, beti egoten dira oso pozik, bai hemengoak bai hangoak. Esperimentzia oso polita da eta gero ha-



rremana batzuk luzarora be mantenido egiten dabe" dino Kortak.

Erasmus+

Hogei urte inguru daroaz Zeberioko Zubialde eskoleak, Europako beste eskola batzuekaz proiekturen baten alkarlanean ikasturtean zehar eta alkartrukeak egiten. Hasikeran Comenius deitzen zan alkarlan programa hau, eta oin Erasmus+. Zubialde eskoleak, Erasmuseko akreditazioa dauka eta proiektuok diseinetan dauz. "Oin, datorren urtera begira, beste eskola baten bila gabiz beste proiektu baten sartzeako" dino zuzendariak.

EH Bildu eta EAJ-PNVren artean banandu dira Arratia, Ubide eta Zeberioko herritarren botoen gehiengo handia

Aprilaren 21ean, Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeak izan ziran eta EAJ-PNVk boto gehiago lortu ebazan arren, jarleku kopuru bardina lortu dabe EAJ-PNVk eta EH Bilduk: bakotzak 27 jarleku, hain zuzen be. PSE-EEK 12 jarleku lortu dauz; PPK, 7 eta Sumarrek eta Voxek bana.

	Errolda 2024	Abst. 2024	Abst. 2020	EH Bildu 2024	EAJ-PNV 2024	Elkarrekin Podemos 2024	Sumar 2024	PSE-EE 2024	PP 2024	VOX 2024
Arantzazu	301	60 %19,93	75 %24,27	148 %62,98	68 %28,94	5 %2,13	4 %1,70	7 %1,73	2 %0,85	0 %0
Areatza	891	222 %24,92	267 %29,47	342 %51,74	248 %37,52	3 %0,45	10 %1,51	22 %3,33	23 %3,48	7 %1,06
Artea	587	130 %22,15	135 %23,52	216 %48,32	200 %44,74	7 %1,57	5 %1,12	5 %1,12	8 %1,79	2 %0,45
Bedia	893	278 %31,13	350 %40,79	188 %31,18	342 %56,72	3 %0,50	8 %1,33	27 %4,48	26 %4,31	5 %0,83
Dima	1.202	310 %25,79	336 %29,27	547 %62,3	277 %31,55	12 %1,37	10 %1,14	12 %1,37	10 %1,14	4 %0,46
Igorre	3.059	902 %29,49	1.210 %38,76	951 %44,73	979 %46,05	28 %1,32	20 %0,94	78 %3,67	34 %1,60	18 %0,85
Lemoa	2.593	835 %32,2	1.042 %40,11	676 %39,33	791 %46,02	30 %1,75	27 %1,57	90 %5,24	62 %3,61	24 %1,40
Ubide	127	31 %24,41	42 %31,34	67 %70,53	20 %21,05	3 %3,16	0 %0	4 %4,21	0 %0	0 %0
Zeanuri	1.000	251 %25,1	282 %28,4	393 %53,84	298 %40,82	7 %0,96	11 %1,51	7 %0,96	9 %1,23	0 %0
Zeberio	879	223 %25,37	271 %30,97	316 %49,22	286 %44,55	10 %1,56	4 %0,62	8 %1,25	7 %1,09	3 %0,47
Guztira	11.532	3.242	4.010	3.844	3.509	108	99	260	181	63

*Eusko Legebiltzarrerako ordezkariak lortu daben alderdien datuak.

Erredakzioa

Emaitza honek erakutsi dabe EH Bilduren gorako joerak jarraituten dauala, EAJ-PNVk eta PSE-EEK agintean segiduteko gehiengo osoa daukien arren. Baina alderdi horreen indarrak desbardinak dira; izan be, koalizioa egiten badabe be, EAJ-PNVk jarleku gitxiago, PSE-EEK gehiago ditu eta hori igarri ahal da. EH Bildu indartuta atera da eta hori igarriko da legegintzaldian. Elkarrekin Podemosek ez dau eserlekurik lortu eta Sumarrek bat; banandu aurretik Elkarrekin Podemosek 6 eserleku ebazan. 2020an EAJ-PNVk 31 eserleku lortu ebazan; EH Bilduk, 21; PSE-EEK, 10; Elkarrekin Podemosek 6; PP eta Ciudadanosek beste 6 eta Voxek 1.

Arratia, Ubide eta Zeberio

Gure eremuko herrietan, 2023ko udal hauteskundeetan EH Bilduk irabazitako herrietan, lortu ditu boto gehien Aprilaren 21eko Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeetan be. Eta gauza bera gertatu da EAJ-PNVk irabazitako herrietan, Artea izan ezik. Orokorrean gertatu dan legez, partidu bi honek eroan dabez boto konpururik handiena,

besteei alde handia aterata. Ha-ta guzti be, ikusi daiteke PSE-EEK eta PPK 2020an baino boto gehiago lortu dabezala herri gehienetan oingo hauteskundeetan, beste leku guztietan legez.

Alderdi askok egin dabe gora botoetan oin dala lau urtekoa baino partaidetza handiagoa egon dalako baina porzentajeari jagokonez danak ez dabe gora egin.

Arantzazun, 2020ko hauteskundeetan aldean, EH Bildu, PSE-EE eta PP dira igon diran partiduak. EH Bildu 127tik 148 boto jasotera pasau da; PSE-EEK 4 boto jaso ebazan orduan eta oin 7, eta PPK ez eban botorik jaso 2020an eta boto bi jaso dauz oingoan. Beste partiduek boto gitxiago jaso dabez. EAJ-PNVk 77 boto jaso ebazan 2020an; Podemosek 38 boto jaso ebazan, baina oin bitan banandu da eta botoak erdi bananduten dira oingoagaz alderatzeko; holan Elkarrekin Podemosek eta Sumarrek 19na boto jaso ebazala josten da eta oingoan, Podemosek 5 jaso ditu eta Sumarrek 4. PACMA bardin geratu da boto bakaragaz.

Areatzan, 2020ko emaitzak alderatuz, EH Bildu, PP, PSE-EE eta Vox igon dira, 296 bototik

342ra, 19tik 23ra, 14tik 22ra eta 4 bototik 7ra pasauz, hurrengo hurrengo. Lehen ez egoan IZAN partiduak 3 boto jaso ditu eta aurreko hauteskundeetan botorik jaso ez eban PUM+J eta PCTE/ELAK alderdiek boto bana jaso dabe oingoan. 2020an baino boto gitxiago jaso dabez EAJ-PNVk (258, 2020an), Sumarrek eta E. Podemos-AV (19na) eta PACMAk (6 boto 2020an).

Artean, EH Bildu igon da (182 boto 2020an); PSE-EE (4 boto aurreko hauteskundeetan) eta EB-AZk eta PUM+Jk ez eban jaso botorik orduan. Bardin geratu da Vox boto bigaz eta EAJ-PNVk (211, 2020an), PPK (10 boto 2020an); E. Podemosek (20 bototik 7ra pasau dana), Sumarrek (20tik 5era) eta

PACMAk (3tik 1era) botoak galdu dabez aurreko hauteskundeetan jasotakoagaz alderatuta.

Bedian, EAJ-PNVk emaitza hobek lortu dauz aurten 2020an baino; izan be 2020an, 277 boto jaso ebazan. Boto gehiago jaso dabez baita be, EH Bilduk (153, 2020an), PSE-EEK (19, 2020an), PPK (10, 2020an), EB-AZk boto bat gehiago oin eta PUM+Jk aurrekoetan ez eban lortu botorik eta. Bardin geratu dira Vox eta PACMA; eta botoak galdu dabez Sumarrek eta Elkarrekin Podemosek (bien artean 58 boto 2020an).

Diman, EH Bildu (446 boto 2020an), PSE-EE (5 boto 2020an) eta PP (4 boto 2020an) igon dira. Voxek ez eban orduan botorik

jaso. Aurreko hauteskundeak alderatuz botoak galdu dabez EAJ-PNVk (295, 2020an); Elkarrekin Podemos eta Sumar bat ziran eta 44 boto jaso ebazan 2020an, eta PACMAk, 4 boto.

Igorren, EAJ-PNVk (936 boto 2020an), EH Bilduk (770, 2020an) PSE-EEK (47, 2020an), PPK (24, 2020an), Voxek (17, 2020an), PACMAk, EB-AZk eta PUM+Jk aurrekoan baino boto gehiago jaso dabez. Galdu egin dabez botoak barriz, Podemosek eta Sumarrek (jasotakoak erdibanandu ostean, 66).



Lemoan, boto gehiago jaso dabez EAJ-PNVk (678, 2020an), EH Bilduk (591), PPK (41), Voxek (23), EB-AZk, PUM+Jk, IZANek eta Partidu Humanistak. Galdu barriz, PSE-EEK eta Elkarrekin Podemosek eta Sumarrek (bakotxari egokitzen jakon 71 boto).

Ubiden, EH Bilduk eta PSE-EEK gora egin dabe (2020an, 57 eta 3 boto, hurrengo hurrengo). EAJ-PNVk (22), Elkarrekin Podemosek (4) eta PACMAk (2) barriz, boto gitxiago lortu dabez.

Zeanurin gora egin dabe EH Bilduk (295, 2020an) eta PPK (8). IZAN talde barriak 3 boto lortu ditu eta PACMAk 1. Aurreko hauteskundeetan baino boto gitxiago lortu dabez EAJ-PNVk (358, 2020an), Sumarrek eta Elkarrekin Podemosek (18na) eta PSE-EEK (11).

Zeberion, EH Bilduk (262, 2020an), PPK (6) eta Voxek (2) euki dabe aurrekoan baino boto gehiago. IZAN talde barriak 4 boto izan ditu eta aurrekoan botorik lortu ez eban PACMAk eta EB-AZk izan dabe botorik oingoan. EAJ-PNVk (298, 2020an) eta Elkarrekin Podemosek eta Sumarrek (13na) galdu dabez botoak. PSE-EE (8, 2020an) aurreko hauteskundeetan besteko boto jaso ditu.

Aprilak 21. Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeak Emaitzak



DIMA

Sei herritako jantza taldeak batuko dira Dantzari Egunean

Erredakzioa

Hilaren 11n, ospatuko dabe Dantzari Eguna Diman. Bertan sei herritako jantziak batuko dira jantzan egin eta eguna alkarregaz pasetako. Holan, Dimako Gazte Barri jantza taldekoek batera, Arteako Gangori jantza taldekoak, Igorreko Arantzartekoak, Lemoako Durundi Barri taldekoak, Larrabatzuko Bizkargi taldekoak eta Otxandioko Urduri jantza taldekoak egongo dira. Gainera, Zornotzako Bizkargi 1937 zantzar taldeak, Dimako albokari taldeak eta Dimako Bertso Eskolako bertsoariak be hartuko dabe parte. Jantziak 11:00etan alkartuko dira plazan. Harrerea egin ondoren,

kalejireari hasikerea emongo jako. Kalejireak hiru geldione izango ditu baina ibilbidean zehar be jantzan egingo dabe jantziak. 12:30ak aldera kalejirea amaitu eta plazako ekitaldia hasiko da eta ekitaldia amaitutakoan 13:30ak aldera, otzara bat zozketatuko da. Ondoren, bazkaria txanda bitan egingo da: 14:00etan jantziak bazkalduko dabe, eta ostean, 15:00ak aldera helduek. Bazkalostean, 15:30ean hasita ordu biz egur jolasak egongo dira, 17:30ean, erromeria Etxebarria aita- seme trikitilariakaz eta egunari amaiera emoteko 19:30ean txokolata. Bazkariako txartelak Axl tabernan egongo dira salgai hilaren 5era arte.

LEMOA

Kultura bultzatu eta memoria zabaltzeko ekintza ugari Lemoan

Erredakzioa

Hilaren 6tik 12ra izango da Kultura eta Memoria Astea. Urtero lez, ekintza ugari antolatu ditu Udalak, "herritarrei kultura eskaintza berezia eskaini eta memoria historikoari lotutako espazioak zabaltzeko".

Memoriarri jagokonean, hilaren 6an, *Arratiako tranbiaren historia grafikoa* (1902-1964) liburuaren aurkezpena egingo da 19:00etan, Kotxepin Kultur Etxean eta *Lemoa: Arratiako tranbiaren bihotza* erakusketea zabalduko da. Erakusketa hau, astelehenetik barikura egongo da ikusgai 10:30etik 12:30era eta 16:30etik 19:30era. Euskal Herriko memoria be badakar hurrengo egunean, hilak 7, 18:00etan proiektatuko dan *Bizkarsoro* pelikuleak. Eta 1937an, Lemoaxako batailaren memoria lekuetatik pasetan dan Lemoaxa 1937 PR-BI56 ibilbidea egiteko aukerea egongo da domekan.

Kulturari jagokonean, berbaldia egongo da eguaztenean, gazteen buru osasunaren inguruan. Hurrengo egunean Arratiako Musika Eskolako ikasleen kontzertuak egongo dira, emonaldi bi izango dira; lehenengo 18:00etan eta bigarrena 19:00etan. Barikuan, talo tailerra egingo dabe Arratiako Berbalagun taldekoek arrastian eta Zirkozaurre zirkua eta euskal musika tradizionala buztartzen dauzan konpainiak *Harreman* ikuskizuna eskainiko dau Elizondoko plazan, 20:00etan. Kulturako eskaintzei amaiera emongo deute Lemoaxatik Fest musika jaialdiak zapatuan.

Maiatzak 6, astelehena

10:30etik 12:30era eta 16:30etik 19:30era, astelehenetik barikura, *Lemoa: Arratiako tranbiaren bihotza* erakusketea Kotxepin Kultur Etxean. 19:00etan, *Arratiako tranbiaren historia grafikoa* (1902-1964) liburuaren aurkezpena Kotxepinen.

Maiatzak 7, martitzena

18:30ean, *Bizkarsoro* filma eta berbaldia Kotxepinen.

Maiatzak 8, eguaztena

19:00etan, *Hablemos de la salud mental de los jóvenes* berbaldia Kotxepin Kultur Etxean.

Maiatzak 9, eguena

18:00etan eta 19:00etan, Arratiako Musika Eskolako ikasleen kontzertuak Kotxepin Kultur Etxean.

Maiatzak 10, barikua

17:00etan, Arratiako Berbalagunek antolatuta, talo tailerra Kulturguneko plazan; 20:00etan, Zirkozaurre konpainiaren *Harreman* zirkua ikuskizuna Elizondoko plazan.

Maiatzak 11, zapatua

12:00etan, Arratia Musika Eskolakoak Kotxepin Kultur Etxeko atzeko landan; 13:00etan, Jon Moma; 14:00etan, Lorelei Green; 17:00etan, Maria Vaquerizo; 18:00etan, Aimar; 19:30ean, The Last Hidden Fox.

Maiatzak 12, domekea

09:30ean, Lemoaxa 1937 PR-BI56 mendi martxea, 1936ko Gudariaren parketik urtenda.

ARRATIA

Gazara laguntza eroateko bidean da Askatasunaren Ontzidia

Erredakzioa

Mundu osoko nazinoarteko ikuskariek, kazetariak eta aktibistek, Israelen blokeoa apurtuteko asmoz eta Gazara laguntza humanitarioa eroateko helburuagaz, hainbat itsasontzik osotutako Askatasunaren Ontzidian Gazara abiatu dira; euren artean, arratiar bat, Mikel Zuluaga "Mikelon" Arteako Herriko Bentakoa.

Gazakoei laguntza zuzenean eroateaz gainera, Askatasunaren Ontzidiaren beste helburu bat da genozidioagaz amaitutea exijidutea. Izan be, 34.000 personatik gora hil ditu Gazan Israeliek; eurretako 13.000tik gora, umeak. Ontzidiak 5.500 tona laguntza

eroango dau, gerra arma moduan, muturreko gosea sufriduten dagoan jenteari lagunduteko. Jenteari zuzenean eroan gura deustie laguntzea, jenteari zuzenean ku-deatu dagian laguntza hori.

Ontzidikoek, Nazinoarteko komunitadeari deia egin deustie Gazako jentea genozidiotik babesteko eskatuz.

Askatasunaren Ontzidia 2009an sortu zan Israeliek Gazan ezarritako blokeoa itsasoz apurtzeko asmoz.

Oztupoak

Hiru aste eriozian apirilaren 26an Ontzidiak Turkiako uretan, Gazara urteteko zain; Israelen blokeo administratiboa dala-ta, urten ezinik.

Hiru itsasontzik osotuten dabe Ontzidia. Akdeniz izenekoak laguntzea daroa eta Guinea Bissau Errepublikaren bandereagaz nabegetan dau. Ontzidiak salatu dau Guinea Bissauri presino egiten dabilala Israel, babesa kendu deion eta Guinea Bissauk itsasontzia barriz ikuskatzea ebatzi eban, laguntzea eroate atzeratuz, jentea, umeak batez be, desnutrizinoz hiltzen diran bitartean.



Logoak: euskaltzaleen topagunea, TOKIKOM, Bizkara, arabe alava, euzko kulturaren erakundeak, Euzko Kultur Erakundeak, Euzko Kultur Erakundeak, Euzko Kultur Erakundeak.

ERRO
Amala Lejarreta

DENA ASMATUTA DAGO
Jone Arriola

KATALINAREN ZORIA
Guillermo Ordás

BABESA
Ander Iruretagoyena

MUNDU BERRI BAT
Mikel Alvarez

ZIRRARA
Ane Cuesta

TALKAK
Irene Diaz eta Jordi Nuet

BETIZU BURU
Kim Maileny Munoa

APIRILAREN 12tik
MAIATZAREN 12ra

EUSKARAZKO FILM LABURREN
XXI.ZIRKUITUA - 2024

LABUR BIRA

Tokia: Udaletxeko Aretoa (AREATZA)
Eguna/Ordua: Maiatzak 3, 19:00etan
Antolatzailea: Zertu Kultur Elkarte

Info +

SOLASTALGIA

Arteako Herriko Benta, lurraldea ardatz daukien kultur ekoizpen, esku-hartze artistiko eta kritika sozialeko gune izango da maiatzean

Arteako Herriko Benta, maiatzeko astegoienean, lurra ardatz daukien berbaldiak, zine dokumental emonaldiak, liburu aurkezpenak, kontzertuak, lan artistikoak, argazki erakusketak eta ibilaldiak besteak beste antolatu ditu, Solastalgia topaketetan.

Erredakzioa

Egitaraua, maiatzaren 4an, 17:00etan, hasiko da Adrian Almazanek egindako topaketan aurkezpenagaz. Ostean, Almazanek berak gidatutako mahai-inguruan, Paz Moreno Feliuk baserriaren gainbeheraz egingo dau berba eta Angel Larreak Arratiatik bidai historiko-etnografikoa egingo dau. Hurrengo egunean, 17:30ean, Fermin Muguruzaren *Bidasoa 2018-2023* dokumentalaren emonaldia egongo da eta ostean solasaldia Gari Garaialde eta Itziar Gomezegaz. Ignacio Mendiolak egingo ditu moderatzaile lanak.

Bigarren astegoieneko jarduerak barikuan hasiko dira. Holan,

19:00etan, Leire Urkidik eta Alvaro Camposek, Euskal Herriko proiektu desarrollisten mapeoa eta analisia eskainiko dabe Oihane Garcia moderatzaileagaz. Zapatuan, 17:00etan hasiko dira topaketak, Aida Lopez Urbanejarren Lurralde Antolakuntza Planen gaineko begirada feministeagaz. Gero, Lurralde antolakuntza eta hizkuntzearen auzia landuko dabe Elixabete Urzelai eta Arritxu Zelaiak. Zesar Martinez izango da moderatzailea. Domekan, 17:30ean, Alasne Artetxek eta Jon Urutxurtuk Arratiako lagunak solasaldia gidatuko dabe.

Bigarren hamabostaldian

Bigarren hamabostaldiko bariku, zapatu eta domeketan be, egitarau

oparua antolatu dabe Herriko Benta. *Piperra hazitik mahaira* eta Mikele Landaren *Noizko basoa* zine-emonaldiak; Josebe Blancoren *Hausnarrean*. *Ardiek egin naute artzain eta Bazter Hautsiak*. *Euskal Herriko turismo gidaliburu dese- raikia* liburuen aurkezpenak; *Etxea, emakumea eta lurralde*. *Mundu tradizioaletik gizarte modernora*; *Euskal Herriko landa paisairen antolaketa XX. Mendean*; *Ezinegonak gizarte modernoan* eta *Minaren indarra* berbaldiak entzuteko aukerea egongo da. Kontzertuei jagokienean, Ines Osinaga hilaren 18an eta Deiedra taldea 26an egongo dira.

Esku-hartze artistikoe eta ibilbide gidatuek osotuko dabez Solastalgia topaketak.



Uriko bizimodua itxi eta Arratiara etorritakoen esperientziak izango dira berbagai Nerea Zuluagaren tailerrean

Erredakzioa

Solastalgia, kultura, kritika eta lurraldearen topaketetan egongo da Nerea Zuluaga *Arratiako neoruralen narratiba-tailerra* emoten. Soziologoa, uria itxi eta Arratiara biziten etorritakoen gainean egiten dabil doktoretza-tesia EHU Un Ekopol, ekonomia politikoa eta ekologia politika ikerketa taldean.

Deustuarra izatez, lehendik be ezetuten eban Arratia doktoregaiak; izan be, aita Zeanurikoa da.

Arratiaren inguruko tesia egiten zabiz, zer zabiz ikertzen?

Uriburitik edo kanpotik etorri dan jentea alkarrizketatzen dot eta euren esperientziak jasotzen dodaz. Batzuek ebatzi dabe ortuan lan egitea eta lehenengo sektorerako salto egitea, horreek dira neoruralak, eta beste batzuek ez, jarraituten dabe lehenagoko lanetan, ez lehenengo sektoreko lanetan. Eta ikertu dot Arratiara etorteak ze eragin egin dauan euren bizikaldidean eta zelan aldatu dan euren bizimodua urian biziteari itxi eta hona bizitera etorri diranetik. Orokorrean bizi-kalidate hobea daukiela dinoe, askoz hobeto bizi dirala. Askotan bizimodu lasaigoa daukie, konsumo gitxiago egiten dabe, urian dana dala erosi eta konsumidu eta joan eta etorri dinoe... Eta hemen ez dagoenez hori, bizimodu lasaigoa eta lurrari lotuagoa egiten dabela.

Jente asko dago Arratian uria itxi eta herrira biziten etorteko aukerea egin dabenak?

Bai. Jente asko topau dot. Zelan bananduten diran herrietan ez dakit zenbaki zehatza, baina ikusi dodanagaitik ia herri guztietan dago holango esperientziaren bat.

Solastalgia topaketetan Arratia

neoruralaren narratiba tailerra emongo dozu. Zer da tailer hori?

Alkarrizketatu dodan jentea eta Arratiakoak betikoak diranak etortea gurako neuke eta horreen arteko alkarrizketa bat egin; zer dan ondo bizitea definitutea eta zer falta dan edo zer egin beharko zan Arratia leku bizigarriago bat izateko eztabaidatzea. Zer botaten daben faltan, zer egon beharko zan...

Askotan, lehenengo sektorerako salto egin gura dabenek ezin izaten dabe, lurra oso karua dalako. Askok gura dabe baserriera etorri eta, zentzu baten, lehenengo bizimodua errekupeara, baina ezin dabe lurra lujo bat dalako. Alokairu sozialak edo etxebizitzak merketutea beharko litzateke, akaso. Galderak egin gura dodaz. Landa garapena edo garapen komunitarioa ulertzeko proposamenak edo ikuspegiak batu gura dodaz.

Zergaitik Arratia?

Aitaren aldeko familia Zeanurikoa da eta ezetuten dot Arratia. Nire Deustuko kuadrillako lagun bat be hona etorri zan biziten eta jenteari galdetzen hasteko errazago ikusten neban ezetuten neban Arratian beste leku baten baino.

Bermeon be familia daukazu. Han ez da holangorik gertatu?

Han be badagoz baserriak baina gure gizartean, idealizazio bat dago landa eremuarena eta Bermeon be landa eremua egon arren, beste gauza bat da.

Arratia hobeto egokitzen da landa eremuaren idealizazio horri.

Bai. Gorbeia inguruan eta gainera uriburu biren artean dago. Gasteiz eta Bilbo, oso hur dagoz eta horrek jente asko etorteko aukerea emoten dau. Dei-efektua moduko bat sortzean da, batzuk etorten dira eta gero lagun edo ezagunak be bai.



Laguntzaileak:



ZEANURI ERROTARIK ERROTA

Zeanurín, errotarik errota

Maiatzaren 5ean izango da Zeanuriko Erroten XVII. Ibilaldia.



Jon Urutxurtu

2024ko Zeanuriko Erroten Ibilaldia maiatzaren 5erako prestatu dau Joko Alai Alkartek. Aurten oinezko martxa honek hamazazpigarren edizinoa beteko dau eta ibilbideak, 4 kilometro gitxiago izango ditu. Holan, ibilbide luzeak 14 km izango ditu eta laburrak 7 km.

Antolatzaileek adierazoten dabenez helburuak hasikerako berberak dira: "alde batetik, herritarrei zein kanpotik hurreratzen diran bisitariari Zeanuri eta bere auzoak ezetutera emotea; bestetik, Zeanuriren historian errotek izan daberen garrantzia ezetuazotea eta azkenik, domeka goiza natureagaz harremanetan eta kirola eginez pasetako aukerea eskaintzea". Ez dira gitxi, izan be, herri honetan ezetuten diran edota han-hemenka azaltzen diran errota edo erroten errastuak, guztira hamazortzi, danak hidraulikoak. Ibilbidean zehar zazpiren ondotik igaroko dira ibiltariak eta hirutan —Errotabarrin, Ibagutxin eta Olabarrin— sartu-urtena egiteko aukerea izango dabe.

Aurreko urteetako ibilbideagaz alderatuz, aurtengoan aldaketak egin dabez antolatzaileek: "kontuan hartuz ibilaldi hau familian eta umeakaz egiteko aproposa dala, 4 kilometro laburtu doguz, holan errota eta instalazio desbardinak lasaitasunez eta prisat

barik ikusteko aukerea emonaz.

Ibilbide bi prestatu dabez antolatzaileek: bata luzea, 14 kilometrokoa, eta bestea, laburragoa 7 kilometrokoa, jan-edana bananduko dan lekutik helmugara zuzentzen dana. Hemendik be bisitetan diran errota bitara sartzeako aukerea izango dabe: Errotabarrira —helmugara bidean— eta Olabarrira, azken hau helmugatik 300 bat metrora dago eta.

Urtekera herriko plazan izango da, goizeko 09:00etan; udaletxearen aurretik abiatuz lehenengo Altzibergo errotearen ondotik igaroko dira ibiltariak eta 500 metro aurrerago Errotabarrira helduko dira: hemen sartu-urtena egiteko eta errotea martxan ikusteko aukerea eukiko dabe. Jarraian Undurragak urtegiaren ertetik egingo dabe aurrera. Urtegi atzean itxi bezain laster Ibar-

gutxiko errotarako bidea hartuko dabe; hemen, atek zabalik izango dira, eta gura dabenek kuku bat egin eta errotea lanean ikusi ahal izango dabe. Ibagutxetik barriro Undurragak urtegiaren ertetik ekingo deusie bideari, oingoan beste aldetik; presatik 100 metro atxina, Alkiberren, indarrak barritzeko jan-edana bananduko da. Aurrerantzean, lehenengo Otzerinmendi auzunean eta gero Uriben sartuko dira ibiltariak, eta Intxaurbeko, Axpeko eta Zulaibargo erroten ingurutik igaro ostein, azken kilometroa beteten hasiko dira. Helmuga baino 300 bat metro lehenago ibilbideko azken errotea azalduko da, Olabarriko, Pujana familiak guztiz zaharbarritua, eta sartu-urtena egiteko aukerea izango da, Zeanuriko plazara heldu eta ibilaldiari amaiera emon aurretik.



ZEANURIKO ERROTEN XVII. IBILALDIA

Jan-edana

Irteera eta helmuga

- 2024ko maiatzaren 5a, domeka
- Irteera ematea: 08:30etik aurrera: 6 € / Joko Aldiko bazkideak: 4€ / <13 urte: debalde
- Irteera: 09:00etan, plazan
- Ibilbidea: 14 kilometro

Laburra: 7 kilometro

ANTOLATZAILA

LAGUNTZAILEAK

Sartu-urtena egiteko hiru errotak: Errotabarri, Ibargutxi eta Olabarri

Ibilbidean zehar zazpi errotaren ondotik igaroko dira ibiltariak eta Errotabarrin, Ibargutxin eta Olabarrin sartu-urtena egiteko, eta osotzen daben atalak bertatik bertara ezetuteko aukerea izango dabe.

Errotabarriko errotea: Otzerinmendiko kofradian dago. 1785ean eregi eben. Zeanuriko errotarik barriena da. Hiru harri ditu. Errota honetan, presea eta anteparea lotuta dagoz konporta baten bidez. Zeanuriko gainontzeko errotetatik bereiztuz, Errotabarrin errotapetik kaltze bat ateraten da, urak errekarra bideratzeko. 1975eko apirlean itxi eutsan lan egiteari eta azken errotaria Andres Aldekoa "Ane" izan zan. 2015ean guztiz zaharbarritu eban Errotabarri Manterola familiak.

Ibargutxiko errotea: Ipiñaburuko kofradian dago. XIX. gizaldian burdinolea izan zan. Gaur egun harri bi badaukaz be, hiru harrigaz egin eban behar. Hirugarren harriak 1950erantza itxi eutsan lan egiteari. 1945ean errotearen azpiko aldean turbina bat eta generadore bat jarritz argindarra ekoizten hasi ziran Ibargutxin, eta 1978ra arte gitxi gorabehera Alzua, Ipiñaburu eta Undurragakoko baserri batzuetara saltzean eben elektrizidadea. Ibargutxiko errotearen instalazioak guztiz zaharbarrituta dagoz. Azken errotaria Gabriel Larrazabal izan zan, eta bere heriotzearen ostean, urte batzuetan, Satur semeak jarraitu eban ingurukoentzat ehoten. 2019an Pedro Elexpek erosi eban errotea eta bera da gaur egungo jaubea.

Olabarriko errotea: Ibarguen kofradian dago. Jatorriz burdinolea izan zan eta Zeanuriko patronoa zan Arriola familiaren jaubetza. Pujanatarren aurretik Manterola familiak ustiatu eban, 1898ko zemendiaren 30ean, San Andres egunean, Isidro Pujana, errentari moduan, errotearen kargu egin zan arte. XX. mendearen erdirantza Benigno Pujanak, Isidroren semeak, errotea erosi egin eutsen Arriolarrei. Benignok errotari lanetan jardun eban 1995eko urri bigarrenaren 11n hil zan arte. Aitaren heriotzearen ondoren, Fermin semeak errotearen zaharbarritze lanei heldu eutsen. Olabarriko erroteak hiru harri ditu. Errotearen ondoan burdinolaren errastuak azaltzen dira. Erabilitako balantza be errotan gordetzen da.



2024 Karpoko Jaiak

Maiatzak 4, zapatua

- Paella eta Gisadu Lehiaketak errekarako paseoan.
- 09:30 Upo Galapan mendia lasterketea.
- 12:30 Areatzako Banda eta Bitartean Folk Taldea.
- 14:00 Paella eta Gisadu Lehiaketen aurkezpena udaletxeko arkupetan.
- 15:00 Bazkari herrikoia.
- 17:00 Plastikuzko ahate lasterketea errekan.
- 18:30 Giza proba desafioa Golkokalen. Herritarren talde misto bi alkarren kontra.
- 20:00 Kittu taldeagaz kalejirea herriko kaleetan zehar.

Maiatzak 5, domekea

- 10:00-14:00 Ganadu eta Ekoizleen Azokea plazan.
- 13:00 Kalejirea Eingo taldeagaz herriko kaleetan zehar.
- 14:00 Azokearen amaierara eta errifearen zozketea.
- *Familia Elkarteak taloak egingo ditu

Logos: Urdin, OROKALDE, bbk, BERRI-UPONDUKUPETZA, AREATZAR BANDA, Bizkaia

SAN ISIDRO

Aurreko astegoinean eta egunean bertan ospatuko dabez sanisidroak Zeanurín

Inguruko jente gehien erakarten dauan ganadu azokea, maiatzaren 11n, zapatuan izango da. Abere, Artisau eta Nekazal Produktuen Azokan ganadua izango da protagonista, baina baserriko produktuen eskaintza handia be egongo da eta baserri munduari lotutako lanbide batzuen erakusketea.



Erredakzioa

Aurreko egunean, "euskaldun egiten gaituen" burruken inguruko berbaldia egingo dau Ibai Atutxa Ordeñanak EHUko irakasleak.

Beste sasoi bateko lekuko dan baserri giroa egongo da Zeanurín sanisidroetan eta oin dala 42 urte lez, ganadurik ederrenak ikusi ahal izango dira azokan eta idi-probak ez dira faltauko San Isidro egunean. Ganadu azokea Koldo Intxaurrea zinegotzia eta Julian Ajuriagerra eta Agustin Lejarreta abeltzainen ekimenez hasi zanetik, beti izan da Udalaren eta abeltzainen ekimena, Zeanuriko mugetatik harago joan eta inguruko eta Bilboko jentea be erakarri egin dauana. Bertan egoten dira ikusgai, 80 bat behi-pirenaiko, terreña eta limusina errazakoak, batez be- 30 txahal inguru eta 60tik gora behor. Ardiak, ahuntzak, astoak... eta beste abereak be egongo dira bertan, baserriar zein kaletarren gozamenarako. Ganadu ederrenak saria jasoko dabe. Sari banaketea 13:00etan izango da plazan.

Ganadu eta baserriko pro-

duktuez gainera, baserriko bizi-moduari lotutako langintzak be erakutsiko dabez Zeanuriko plaza eta inguruetan: Enrike Etxebarriak gaztaia egingo dau; Rakel Santamariak artilea zelan landu erakutsiko deutse ume eta helduei eskainiko dituan tailerretan; Pabi Astondoak kodainea piketan erakutsiko dau eta perrategia be ikusgai egongo da.

Goiz osoan girotuko dabe jai herriko xistulariek.

Arrastia umeentzat eta gaua gazteentzat izango da. Pelota partiduak egongo dira arrastian, Bizkaiko gaztetxoek semifinalak; ilunzean, Orkresta elektrotxarangeak ipiniko dau musikea eta gauetan, erromeria egongo da Gautegun taldeagaz. Ostean, erretirau gura ez dabenentzat DJ La Trakak ipiniko dau musikea berandura arte.

San Isidro eguna eguaztena da eta jai herrikoentzat izango da. Goizean, umeentzako jolasak plazan, mezea San Isidro ermitan eta Arrikibar jantza taldeak eskal jantzen emonaldia eskainiko dau, herriko xistulariek lagun-duta. Amaitzeko, ganadu azokea

euskaltzaleen topagunea TOKIKOM Bizkaia araba-álava

ERRO
Amaia Lejarreta

DENA ASMATUTA DAGO
Jone Arriola

KATALINAREN ZORIA
Guillermo Ordás

BABESA
Ander Iruretagoyena

MUNDU BERRI BAT
Mikel Alvarez

ZIRRARA
Ane Cuesta

TALKAK
Ilune Diaz eta Jordi Nuet

BETIZU BURU
Kim Malleny Munoz

APIRILAREN 12tik
MAIATZAREN 12ra

**EUSKARAZKO FILM LABURREN
XXI. ZIRKUITUA - 2024**

LABUR BIRA

Tokia: ARTEA-ko KULTUR ETXEA

Eguna/Ordua: MAIATZAK 10, 19:00etan

Antolatzailea: ZERTU K.E eta ARTEA-ko UDALA

Info +



bezain ezaguna dan idi-proba erakusketea egongo da. Hiru idi pare neurtuko dira bertan, Jose Luis Ormaetxeren (Zamudio), Gotzon eta Lander Plazaren (Maruri) eta Iñaki Vidaurrazagaren (Zamudio) idiak norgehiagoka.

Maiatzak 9, eguena

18:30ean, *Euskaldun egin gaituzten borrokak* berbaldia Kultur Etxean. Hizlaria: Ibai Atutxa Ordeñana, EHUko irakaslea.

Maiatzak 11, zapatua

10:00etatik 14:00etara Abere, Artisau eta Nekazal Produkuen Azokea. Bertan, gaztaia egingo dau Enrike Etxebarriak; artile tailerrak Rakel Santamariak; kodai-nea pikau Pabi Astondoak; artxo txuleta dastaketea eta perratokia ikusgai egongo da 11:00etatik 13:00etara eta bideo proiektzioa

egongo da. Goiz osoan zehar, herriko txistulariak plaza inguruan.

12:00etan, herri-kirolak. Harri zulatzaileen erakustaldia plazan.

13:00etan, Abere Lehiaketako sari banaketea plazan.

16:30ean, pelota partiduak: Bizkaiko gaztetxoekoen semifinalak.

19:00etan, Orkresta elektrotxaranga.

22:30ean, Gautegun taldeagaz erromeria eta ondoren DJ La Traka.

Maiatzak 15, eguaztena

11:30ean, egurrezko jolasak umeentzat. Plazan.

12:00etan, mezea San Isidron.

13:00etan, Arrikibar jantza taldearen emonaldia herriko txistulariakaz.

18:00etan, idi-probak. Jose Luis Ormaetxeren (Zamudio), Gotzon eta Lander Plazaren (Maruri) eta Iñaki Vidaurrazagaren (Zamudio) idiak.

ETA ZU EZ ZAITUGU OINDINO SAREAN HARRAPAU? GERO ETA GEHIAGO GARA!

Instagram: 1.391 JARRAITZAILE
Twitter: 417 JARRAITZAILE
Facebook: 2.500 LAGUN

begitu

MAIATZAK 11

UBIDESTROI TRAIL

MAIATZAK 10
19:00-20:30 Dortsal banaketa

MAIATZAK 11
07:30-08:45 Dortsal banaketa
09:00 Lasterketaren hasiera
12:00 Puzgarriak
16:00 Sari banaketa
16:00-19:00 Orkresta elektrotxaranga
17:00 Ubisetroitxo umeen lasterketa
20:00-23:00 Erromeria

Egun guztian zehar TALOAK, TXOSNA, PASTELAK

ARRABIKE, mooneki, ONA, guramen, haizatu

lacturale, Gorbeia, elmo, SCHMIDT, GAKAR KIROLAK, 787

LA VAN DULA, IRURI, UBIDE TABERNA, Ollerias, LOLI - LEIRE DENDA, Z'haitz



Argazkiak: Jon Urutxurtu.

Onratu Herri Kostatzaia

Gure

ikastetxeak

Ευκαλδuna
καλιδεζκoα
herrikoia

JB Eguzkiza Meabe HI Tel.: 94 631 32 28 Lemoa	Ikastola Arratia HI Tel.: 94 428 78 15 Artea
Ugarana HI Tel.: 94 631 55 32 Dima	Arratia BHI Tel.: 94 428 79 34 Igorre
Zubialde HI Tel.: 94 648 06 82 Zeberio	Areatzako Herri Eskola Tel.: 94 673 90 93 Areatza
Zeanuri HI Tel.: 94 673 93 33 Zeanuri	I. Zubizarreta HLHI Tel.: 94 673 60 22 Igorre



Arratiako datuak

Sortzen ditugun hondakinak

- Errefusa %20
- Arropa eta besteak %5
- Beira %8
- Ontzi arinak %12
- Papera/kartoia %15
- Organikoa %40

Sortzen ditugun hondakinen % 80 birziklatu daitezke, bere edukiontzian behar bezala botatzen baditugu

Arratian bakarrik %27

Bildu da bereiztuta

EZ BADUGU BEREIZTEN, EZIN DUGU BIRZIKLATU

%95

MATERIA ORGANIKOAREN %95 ERRAUSTERA BIDALTZEN DUGU

ORGANIKOA KONPOSTATZERA!

Bereiztuta biltzen duguna

07/2022 Legeak derrigorrezko egiten du organikoa bereiztuta jasotzea. Noiz hasiko zara zu?



Arratiako Musika Eskola

IKASLE BERRIEN MATRIKULAZIOA

4 URTEK AURRERA ETA ADIN MUGARIK GABE

Matrikulazioa ONLINE
www.arratiakomusikaeskola.eu

*** INFORMAZIOA:**

- Web gunean
- Astelehen eta asteazkenetan
10:00etatik - 13:00etara
- Astearte eta ostegunetan
15:00etatik - 18:00etara

Telefonoa: 94 631 73 52

MATRIKULA
Epea: maiatzean

ONLINE



ESKAINTZA OSOA

GOI-MAILAKO ZIKLOAK

Metal Eraikuntzak
Web Aplikazioen Garapena
Plataforma Anitzeko Aplikazioen Garapena
Mekatronika Industrialia
Garraioa eta Logistika

ERDI-MAILAKO ZIKLOAK

Merkataritza Jarduerak
Erizaintzako Zaintza Osagarriak
Mantentze-lan Elektromekanikoa
Soldadura eta Galdaragintza
Mikroinformatika-sistemak eta Sareak

ENPLEGURAKO PRESTAKUNTZA

Langabeei eta landunei zuzendutako ikastaroak

946 730 251 | info@fpzornotza.com | www.fpzornotza.com



CENTRO INTEGRADO
DE FORMACIÓN PROFESIONAL

ZORNOTZA

LANBIDE HEZIKETAKO
IKASTETXE INTEGRATUA

DATAK

Aurrematrikula
maiatzaren 6tik 24ra

Matrikula
uztailaren 11tik aurrera

Ate irekiak
maitzaren 8an



SAN ISIDRO JAIAK ZEANURI 2024

MAIATZAREN 9^a, EGUENA

18:30ean: HITZALDIA kultur etxean:
"Euskaldun egin gaituzten borrokak"
Hizlaria: Ibai Atutxa Ordeñana, EHUko irakaslea

MAIATZAREN 11, ZAPATUA

10.00-14.00: ABERE, ARTISAU ETA NEKAZAL
PRODUKTUEN AZOKA

BURUTUKO DIRAN EKINTZAK:

- **GAZTAIA EGITEA**
Enrike Etxebarria
- **KODAÑEA PIKAU**
Pabi Astondoa
- **ARTILE TAILERRAK UME ETA HELDUENTZAT**
Rakel Santamaría Jimenez
- **ARTXO TXULETA DASTAKETA**
- **PERRATOKIA** ikusgai egongo da 11.00etatik 13.00etara
eta bideo proiektzioa jarriko da

Goiz guztian zehar, herriko **TXISTULARIEK** musikaz girotuko dabez plaza inguruak

12:00etan: **HERRI KIROLAK**: Harri zulatzaileen erakustaldia plazan

13:00etan: **ABEREN SARI BANAKETA PLAZAN**

16:30ean: **PELOTA PARTIDUAK**: Bizkaiko gaztetxoan semifinalak

19:00etan: **ORKRESTA ELEKTROTUNA**

22:30ean: **GAUTEGUN** erromeria eta ondoren DJ "La Traka"

MAIATZAREN 15^a, EGUAZTENA, SAN ISIDRO

11:30ean: **EGURREZKO JOLASAK** umeentzat, plazan

12:00etan: **MEZA NAGUSIA SAN ISIDRON**

13:00etan: **ARRIKIBAR** dantza taldearen emonaldia herriko TXISTULARIakaz

18:00etan: **IDI PROBEN ERAKUSTALDIA**:

- JOSE LUIS ORMAETXE (Zamudio)
- GOTZON eta LANDER PLAZA (Maruri)
- IÑAKI VIDAURRAZAGA (Zamudio)

begitu

BAIETZ 30 LAGUN BARRI EGIN!

2024AN EGIN ZAITEZ BEGITU-LAGUN! BEGITU-LAGUN EGITEAK SARIA DAUKA!

Begitu aldizkariaren asmoa eten barik hobetzea da, beti be Arratia-Ubide-Zeberio inguruko euskerazko aldizkaria euki daigun. Baina horretarako baliabide ekonomikoak indartu behar doguz, Begitu bere buruaren jaube izan eta etorkizunari bermez eutsi ahal izateko.

Horretarako **2024an egin zaitez Begitu-lagun!** kanpainera abiatu dau Begitu aldizkaria argitaratzen dauan Zertu Kultur Elkarreak, eta helburua argia da:

Arratia-Ubide-Zeberioko hamabostekari euskalduna babestuko dozu?



Oindino Begitu-laguna ez bazara, eta Arratia-Ubide-Zeberioko hamabostekaria babestu gura badozu, bete egizu beheko formularioa eta bialdu honako helbidera:

Zertu Kultur Elkarrea Herriko plaza 24. 48142 Artea.

Izen-abizenak: _____

Helbidea: _____

Telefonoa: _____ Helbide elektronikoa: _____

Kontu korrontearen zenbakia: ES _____

Aukeratu urteko kuotea: 40€ 60€ 80€

*Gainera Begituren produktu honeek helduko jatzuz etxera doban.

begitu.eus    

Edo e-mailez, bialdu datuok: begitu@begitu.eus helbidera.



IPINI ZURE IRAGARKIA BEGITUN!

Informazinoa: **649 979 115**
eta inigoirua@begitu.eus

MENDIA

Upo Galapan, Areatzako mendi lasterketa herrikoia maiatzaren 4an izango da

Erredakzioa

Lamino Kirol Klubak eta Areatzako Udalak antolatuta, Upo Galapan mendi lasterketearen II. edizioa maiatzaren 4an izango da, igazko lez, Karpoko jaietan. Mendi lasterketa herrikoia da eta 14 km-ko ibilbidea eta 800 metroko desnibela dauka.

Lasterketeak, ibilbide zirkularra dauka, eta Gudarien Plazaren inguruan izango ditu urtekerea eta helmugea. Lasterkariak 09:30ean

ekingo deusie karrereari eta, horniketa puntua ibilbidearen erdi inguruan, 8. kilometroan, izango dabe. Lasterketeari izena emoten deusian Upo mendiaren tontorra, 10. kilometroan zapalduko dabe partaideek. Mendi lasterketa hau "edozeinek egin ahal izateko modukoa da, bai distantzia, bai desnibel aldetik" antolatzaileen arabera. Lasterketea amaitutakoan, dutxea hartu ahal izango dabe parte-hartzaileek eta opari bana jasoko dabe.



TXIRRINDULARITZEA

Oskar Garro urrezko domina bigaz bueltau zan Murtziatik

Erredakzioa

Apirilaren 20 eta 21ean, Oskar Garro txirrindulari igorretarrak Espainiako Txirrindularitza Egokituko Kopako saio bi jokatu eta irabazi ebazan Ceutin (Murtzia). Zapatuko erlojupekoan zein domekako zirkuituko lasterketan lortu ebazan urrezko dominak bere kategorian, MC2an. Lortutako emaitzakaz pozik, maiatza amaieran jokatuko dauan Espainiako Txapelketa "gogorra" prestatuten ipiniko ditu oin indarrak.

Garroren esanetan, zapatuko erlojupekoa izan zan batez be gogorrena, hamazortzi kilometro aldapatsu. "Sufridu ostean irabazi neban, ondo kostata", adierazo eutsan BEGITURI. Hurrengo egunean barriz, hiru kilometroko zirkuituan lehiatu zan, ordu bete gehi bira bat egin behar izan ebazan. Orduan be, lehena izan zan igorretarra. Lasterketea hasi zan momentutik, "erasoan eta aurkariak kantsetan" lortu eban marka.



PELOTEA

Ainhoa Ruiz de Infante txapeladun Ados Pilota Elkarteko Binakako Txapelketa Nagusian

Erredakzioa

Apirilaren 20an Antzuolan jantzi eben txapela Ainhoa Ruiz de Infante eta Leire Galeanok Maddi Barrocal eta Naroa Agirireri 22-17 irabazita. Ados Pilotak antolatutako txapelketea 4 hilebetez luzatu da. Promozino eta Elite mailako guztira, 58 partidu jokatu dira txapelketa honetan, 36 herritan.

Finala gogorra izan zan, hamar bardinketa egon ziran, azkena 15-15, baina hortik aurrera Txumuluxuetako pelotariak eta Galea-

nok lortu eben aldea ateratea, 22. tantura ailegauz. Finalerdiak, Goiuri Zabaleta eta Irati Zabala liderren kontra jokatu behar izan eben Iruñako Labrit pelotalekuan. Partidua 20-22 irabazi eben.

Txapelketa bikaina egin dabe Ruiz de Infante eta Galeanok. Lehenengoz alkarre-gaz, zerotik hasita, bikotea sendotu eta txapelketea irabaztea lortu dabe. "Txapelketa polita izan da, egunero egindako lanagaitik, baina baita kantxan emondakoagaitik be" azaldu deutso BEGITURI Ruiz de Infante.



ASESORIA Gorbeialde
Juridikoa · Fiskala · Lanakoa · Kontularitza
Askatasun 28, 1B 48143 Areatza
Tfnoa. 94 673 92 93 Faxa. 94 673 92 82
E-posta: gorbeialde@gorbeialde.com

HIGIEZINAK ETA ARKITEKTURA

Blitzko dozen jakintza *Bider dozen proiektuak*

- Solenton zein aldatu
- Lurrak (jarkitza, landa, basoak...)
- Etebideak (jauki, basoak, errek...)
- Garajeak
- Lokal komertzialak
- Pabiloiak...
- Balonazkoak

Irakin berak erakitzeko
Informazio
Arkitekto-proiektuak

-Bare disainua
-CEE eta IIE-ak
-Hirigintza aholkularitza
-Negozioak irekitzeko kudeaketa

arratia
INMOBILIARIA

Lanbideak: Agote 25, Iruñea - Iruñea
Agoteak: 94 621 21 29 - 425 14 35 35
94 621 21 29 - 425 14 35 35
425 14 35 35
arratia@arratia.com

GORBEIALDE
LANDA GARAPENA
ARRATIA, UBIDE ETA ZEBERIOKO
GARAPENEAN LAGUNTZEN

Kili-Kili
Anpas eta Puntukoak
Lehendakari Agote 10 - IGORRE (Bizkaia)
Tel: 94 673 42 81

Olaetxe
OPTICA OPTICA

Graduazinoak
Ikusmen terapia
Ikusmen gubitua
Begiko tentsioa
Lentillen adaptazinoak
Kiroletarako betaurrekoak

Sabinu Arana 3, 48140 IGORRE (Bizkaia)
94 657 70 03 - olaetxeoptika@hotmail.es

begitu
eus

MOTORRAK

Dimako II. Cross Country mendiko motor lasterketea hilaren 4an jokatu da

Dimako Motor Klubak antolatu dau II. Cross Country motor mendi lasterketea, maiatzaren 4rako. Oingo edizino honetan lasterketea Euskadi eta Nafarroako Txapelketetan puntuagarria izango da.

Erredakzioa

Erresistentzia lasterketea da. Dimako eskola ondotik urtenda eta herritik eta inguruetatik 9 kilometro inguruko zirkuitua egingo dabe partaideek, ahalik eta gehinetan, ordu biz. Buelta gehien egiten dituan izango da irabazlea. Igaz, 71 motorzalek hartu eben parte Dimako lasterketan, aurten, ehun inguru espero dabez antolatzaileek. Igaz, neska bakarrak hartu ebala parte baina aurten bi edo hiru izatea espero dabela azaldu deutso BEGITU Joana Kamiruaga antolatzaileak.

Lasterketea arrastian

Lasterketea 15:30ean hasiko dan arren, pilotuak 13:00etarako egongo dira Diman, ordu horretan berifikazioak frontoi txikian egingo dira-ta. Berbaldi teknikoak, 14:40ean izango da eta ostean, 14:50ean, errekonozimendu buelta bat egingo dabe partaide guztiek, ibilbidea ikusteko. Ostean, 15:30etik 17:30era izango da lasterketea.

Sariak 18:30ean bananduko dira eta parte-hartzaile guztien artean be zozketatuko dira opari



batzuk: zirkuitu termaleko sarrera bat persona birentzako eta materiala, hain zuzen be.

Lasterketak berreskuratu guran

Urteak dira inguruko lasterketak gitxiagotzen joan dirala eta horri buelta emon gura deusie hainbat motor klubek Bizkaian. "Igaz hasi ginan lasterketa hau egiten, EAEn lasterketa gitxi dagozalako. Ibilten gara mobiduten Asturiasera, Burgosera, Nafarroara... eta horrek kostu ekonomiko handia dakar. Eta pentsau genduan

hau antolatutea. Gernikan be ez eben eukiten karrerarik eta aurten animau dira. Poztasuna emoten dau hemen inguruan egotea karrerarik! Antxina 6-8 karrera egoten ziran" dinoe. "Taldeak urte asko daukaz. Lehen egin zan karrerarik hemen inguruan oin dala urte asko, 2015ean izan zan atzena. Eta ez gara Dimakoak bakarrik, Arratiakoak eta kanpokoak be bai: Zornotzako jentea dauka, Ugaokoa, Zollokoa, Zarata-mokoa... Helburua da jente gaztea animetea" gehitu dabe.

MENDIA

Ubidestroiz Ubideko mendi lasterketea hilaren 11n jokatu da

Erredakzioa

Maiatzaren 11n, 09:00etan hasiko da Ubidestroiz Trail mendi lasterketearen aurteno edizinoak. Ubidestroiz lasterketeak 28 kilometroko ibilbidea eta 2.000 metroko desnibela dauka. Arrastian umeentzako lasterketea egongo da eta lasterketearen ostean jai giroa Ubideko plazan.

Lasterketariak hainbat mendi tontor zapalduko dabez lasterketearen ibilbidean: Harrikurutz (851 m), Oketa (1.018 m), Gorbela (1.482 m), Aldamin (1.373 m), Arralde (945 m) eta Eneabe (782 m), hain zuzen be. Ibilbide osoa egiteko 6 ordu ditue gehiezin partaideek.

Taloek, txosneak, pastelek, Orkresta elektrotzarangeak eta erromeriak ipiniko dabe jai giroa herrian.

Maiatzak 10, barikua

19:00etatik 20:30era, dorsal banaketea.

Maiatzak 11, zapatua

07:30etik 08:45era, dorsal banaketea.
09:00etan, mendi lasterketearen hasikerea.

12:00etan, puzgarriak.

16:00etan, sari banaketea.
16:00etatik 19:00etara, Orkresta elektrotzarangea.
17:00etan, Ubidestroizko umeen lasterketea.
20:00etatik 23:00etara, erromeria.
Egun osoan zehar taloak, txosnea eta pastelak



2023ko Ubidestroiz.

FUTBOLA

Andrazkoen Arratia A taldeak baino ez eban irabazi atzen jardunaldian

Maiatzaren 1ean, Athletic-eko Kopako finala dala-ta atzeratutako jardunaldia jokatu eben Arratiako futbol taldeek, andrazkoen Arratia Ak izan ezik, ordurako baina BEGITU errotatiban egoan. Hona dakarguzan emaitza eta sailkapenak apirilaren atzen astegienekoak dira. Jardunaldi horretan, andrazkoen Arratia Ak baino ez eban irabazi. Andrazkoen B taldeak bana bardindu eban etxean eta gizonezkoen Arratia Ak eta Bk eta Lemoako Harrobik osteraga galdu egin ebezan euren partiduak.

Erredakzioa

Andrazkoen Arratia A taldeak apirilaren 27an jokatu eban Urbietan Mulier taldearen kontra eta 1-0 irabazi eban Nerea Izagirrek bigarren zatian sartutako golari esker. 28 jardunaldiren ostean 49 puntu ditu Arratiak eta seigarren postuan dago. Datorren partidua etxetik kanpo jokatu dau Berriozar taldearen kontra maiatzaren 5ean, eguerdiko 13:00etan.

Andrazkoen Arratia B taldeak be apirilaren 27an jokatu eban Urbietan, Ibaiondo Nerbioi taldea izan eban aurkari eta bana bardindu eben. 27 jardunaldiren ostean 46 puntu ditu Arratia Bk eta zazpigarren postuan dago. Datorren partidua etxetik kanpo jokatu dau Pauldarrak B taldearen kontra maiatzaren 4an, arrastiko 15:30ean.

Gizonezkoen Arratia A taldeak apirilaren 27an jokatu eban Urbietan Santurtzi talde liderraren kontra eta 0-1 galdu eban bigarren zatian aurkariak penaltiz sar-

tutako golagaitik. 29 jardunaldiren ostean 29 puntu ditu Arratiak eta hamaseigarren postuan dago, jatsiera postuetatik puntu baka-rrean. Datorren partidua etxetik kanpo jokatu dau Iturrigorri A taldearen kontra maiatzaren 5ean, goizeko 11:30ean.

Gizonezkoen Arratia B taldeak apirilaren 27an jokatu eban Orozkon Atxulaur taldearen kontra eta 3-1 galdu eban. 29 jardunaldiren ostean 33 puntu ditu Arratia Bk eta hamabigarren postuan dago. Datorren partidua etxean jokatu dau Berriatuko taldearen kontra maiatzaren 5ean, eguerdiko 13:00etan.

Lemoako Harrobi

Lemoako Harrobik apirilaren 27an jokatu eban etxetik kanpo Sondika taldearen kontra eta 2-1 galdu eban. 29 jardunaldiren ostean 42 puntu ditu Lemoako taldeak eta zazpigarren postuan dago. Datorren partidua Arlonagusian jokatu dau Ezkurdi A taldearen kontra maiatzaren 4an, arrastiko 18:00etan.



Andrazkoen Arratia B eta Ibaiondo Nerbioi taldeen arteko partidua.

LABURBIRA

Areatza eta Artean egongo dira Laburbirako pelikulak ikusgai



Erredakzioa

Dima eta Igorretik pasau ostean, Areatzan hilaren 3an, 19:00etan Udal areto nagusian, eta Artean, 10ean, 19:00etan, Kultur Etxean, Laburbira zirkuituko euskerazko film laburrak ikusteko aukerea egongo da.

Laburbirak, Euskaltzaleen Topaguneak antolatuten dauan euskarazko film laburren zirkuitu

ibiltariak, 38 herritan egingo dau geldiunea bere XXI. edizino honetan. Aurtengo bilduma 8 filmek osotuten dabe: Jone Arriolaren *Dena asmatuta dago*, Guillermo Ordas-en *Katalinaren zoria*, Amaia Lejarretaren *Erro*, Ander Iruretagoienaren *Babesa*, Mikel Alvarezen *Mundu berri bat*, Ane Cuestaren *Zirrara*, Ilune Diaz eta Jordi Nueten *Talkak* eta Kim Maiteny Munoaren *Betizu buru*, hain zuzen be.

LAMINETXE

Laminetxe Gaztetxeak bigarren urteurrena ospatuko dau hilaren 11n



Erredakzioa

Areatzako Laminetxe Gaztetxeak aurtan bigarren urteurrena ospatuko dau. Izan be, gaztetxea 2007an ipini zan martxan baina 2015ean, erabilera eten zan. Belaunaldi barriek, 2022an ipini eben barriro martxan Laminetxe eta oin, maiatzaren 11n, egingo da bigarren urteurreneko jaialdia. Eguerdian hasi eta gauera arte geldialdirik izango ez dauan egitaraua antolatu dabe gazteek ospakizunerako.

Gaztetxea 13:30ean zabalduko da, musika biniloen soinuek girotuta, marianito prestatua hartzeako. Jarraian,

15:00etan hasiko da gazte bazkaria. Honetarako txartelak, Hagina tabernan dagoz salgai zortzi euroan. Bazkalostean barriz, bingo jolasa egingo da eta 19:30 inguruan, poteo musikatua egingo dabe herritik zehar.

Gauetz oster, 22:00etan hasita, kontzertuak egongo dira gaztetxean. Akèer talde galdakaoztarra izango da oholtzara igoten lehena. Urte biko ibilbideagaz, ahots femeninodun rock estiloa lantzean dau laukoteak. Gero, Arratians taldea, MG talde arratiarraren oinordekoak, izango da protagonista reggae musikeagaz. Jaiagaz amaituteko, Gehibi Djak ipiniko dau musikea.

LEMOAKUSTIK

Jon Moma, Lorelei Green, Maria Vaquerizo, Aimar eta The Last Hidden Fox Lemoan izango dira hilaren 11n

Erredakzioa

Urtero lez, Kultura eta Memoria Astearen barruan Lemoakustik Fest musika jaialdia egongo da Lemoan, Kotxepin Kultur Etxeko atzeko landan eta lorategian.

Arratiako Musika Eskolako taldeek emongo deusie hasikerea jaialdiari 12:00etan atzeko landan, eta ostean, beste bost artista edo talde pasauko dira Kotxepin Kultur Etxeko agerle-

kuetako batetik.

Jon Andoni Moreno "Jon Moma" musikari ermuarrak 13:00etan joko dau lorategian. Jon Moma kantautore eta tronpeta-jolea da. 2021ean, *Universos* diskoa kaleratu eban.

Leire Aparicio kantautore bilbotarrak *Lorelei Green* izena hartu eban 2013an hasi zanean berak idatzitako kantak kantetan gitarreagaz eta 2016an kaleratu eban bere lehen diskoa *Aviones*

de papel izenekoa. Bere bigarren diskoa *Lava* 2023an atera eban Lorelei Greenek, baina disko honetan Lorelei Green, Alex Garcia, Ricardo de Lucas, Josu Polanco eta Leire Aparicio dira. 14:00etan, joko dau taldeak atzeko landan.

Maria Vaquerizo kantautore lemoztarra, jaialdiari hasikerea emoten deusien Arratiako Musika Eskolea legez, hainbat bider egon da Lemoakustik Fest-en. Izan be, jaialdiaren helburuetako bat, herriko eta Arratiako artistek parte hartzea da. Lemoztarrak 17:00etan joko dau lorategian.

18:00etan joko dau Aimar genikarrak lorategian. Aimar Cid, Dientes de Luna taldearen kantaria izan zan eta talde horregaz bost disko kaleratu ebazan. Igaz barriz, disko-liburu bat atera eban bakarka *Confesiones de un amor abstracto* izenpean.

Amaitzeko, 19:30ean, landan, The Last Hidden Fox taldeak joko dau bere folk eta country estiloko musikea. Talde bizkaitarrak disko bat dauka kalean, *Sunflowers At Night* izenekoa.

Lemoakustik Fest

Lemoakustik Fest 2017an sortu zan, planteamentu akustiko eta formatu ibiltari batez. Kotxepin Kultur Etxea zabaldu zaneetik, ibiltari izateari itxi eutsan eta Kultur Etxearen inguruan egiten da. Hasikeran, formatu akustikoa baeukan be, Kotxepinen egiten hasi zanean, taldeak ekarten hasi ziran, baina beti be, musika estilo lasaiak jotzen dabezanak: folk amerikarra, indie eta pop, esate baterako. Aurtengoa, zazpigarren edizinoa da.



ZIRKUA

Zirku ikuskizunak egongo dira Igorren hilaren 3tik 5era

Erredakzioa

Akrobazia ikasleen emonaldia, Zirkozaurre kopainiaren *Harreman* ikuskizuna eta Xabi Larrea eta Eleder magoaren emonaldiak egongo dira zapatuan hilak 3, barrikuan eta domekan, hurrengo hurrengo.

Maiatzaren 3an, 18:00etan, *Fantasiaren erreinua* izeneko ikuskizuna eskainiko dabe Igorreko

akrobazia ikasleek Lasarte Areatoan. Urteak dira Igorreko udal ikastaroen artean, ume eta gazteentzako akrobazia ikastaroak eskaintzen dirala. Edade eta maila desbardinatuko ikasleek, ikasitakoa erakutsiko dabe ikuskizun honetan.

Hurrengo egunean, hilak 4, zapatua, Zirkozaurre Bilboko konpainiak, *Harreman*, zirku eta euskal musika tradizionala

buztartzen dituan ikuskizuna eskainiko dau 19:00etan, Goiko Plazan eguraldiak lagundu ezkerro eta kiroldegian eguraldi txarra bada. "*Harreman* zuztarretatik, identidatetik bidaia bat da. Ibilbide honetan, zirkuo teknikak berasmatu egiten dira, gure melodia ezagunenakaz besarkatzeko eta eszena emozinoz eta konplizidatez beteteko" dinoe konpainiakoek euren webgunea.

Domekan, goizez, Xabi Larrea zirkuo aktoreak eta Eleder magoak ikuskizun bana eskainiko dabe Goiko plazan. Larrearen *Mr. Frack* zirku eta umorea buztartzen dituan ikuskizunean, akrobaziak, teknika eta malabareak nahasten dira.

KONTZERTUAK

Bitartean Folk Taldeak eta Areatzeako Bandak kontzertu bi eskainiko ditue maiatzeko lehen hamabostaldian

Erredakzioa

Hilaren 4an, 12:30ean, Areatzan, Karpoko jaietako egitarauaren barruan eskolako aterpean, eta hilaren 11n, 20:00etan, Igorreko Lasarte Aretoan eskainiko dabe kontzertua Bitartean Folk Taldeak eta Areatzeako Bandak.

2023an kaleratu eban Bitartean Folk taldeak bere hirugarren lana, *Bitartean Folk & Band* izenakoa, Hernaniko bandeagaz alkarlanean. Hamabi doinu grabau ebezan bandeagaz eta beste lau laukotean. Oin lana aurkezteko bira bat egiten dabiz eta aurkez-

ten daben herrietako bandeagaz jotzen dabe diskoko 12 doinu horreek. Arratian, Areatzeako Bandak lagunduko deutso Bitartean Folk Taldeari diskoaren aurkezpeneko kontzertuetan.

Bitartean Folk Taldea

Haritz Ezeizak, Garazi Navasek, Sebastian Ustarrozek eta Ixiar Jauregik osotuten dabe Bitartean Folk Hernaniko taldea. Euskal Herria eta Argentina arteko ibilbide nahasketak ditu oinarri eta herrialde bietako doinu, melodia eta erritmoak ditu taldearen musikeak.



ZINEGOAK

Zinegoak jaialdiko sei film labur ikusgai egongo dira Igorren hilaren 10ean

Erredakzioa

Maiatzaren 10ean, 20:00etan, *Manting*, *Dena asmatuta dago*, *Analog Z Love*, *Precoz*, *Flores del otro patio* eta *La tentation du panda roux* ikusi ahal izango dira Igorreko Lasarte Aretoan.

Zinegoak Bilboko LGBTQ+ Nazinoarteko Zinema eta Arte Eszenikoen Jaialdia bagilera pasau dabe igaztik, baina Zinegoak Hedapena, herrietako emonaldiak maiatzean izango dira.

Zinema komertzialean gero eta ohikoago izan arren LGBTQ+ edukiak edo pertsonaiak dituen filmak ikustea, ez da gauza bera gertatzen film labur eta dokumentalakaz eta horreek zabaltzen dira herrietara.

Filmen sinopsiak

Shuyao Chen-ek zuzendutako Txinatar filma da *Manting*. Manting 60 urteak beteta dituan andra bat da eta txikitan beragaz eskolan ibilitako baten hiletan topo egiten dau bere nerabazaroko neskalagunagaz. Hildakoaren oroimenez karaoke baten danakaz egon ostean, andra biek gaua emongo dabe uritik pasean.

Jone Arriolaren *Dena asmatuta dago* egun horretan Artean be egongo da Laburbira zirkuituan barruan, Dima, Igorre eta Area-



tzatik pasau ostean. Bainuontzi baten gazte bi erlajatzen dira porro bat erreten daben bitartean. Alkartzea indarrean ipintzen dan neurrian, elementuen jatorriari eta sorrerari buruzko filosofia egiten hasten dira, alkarriketeak gai personalagoetara jotzen dauan arte.

Malagako Alicia Arwgar-ek zuzendutako pelikulea da *Analog Z Love*. Analogikoan -super 8an- kontautako istorio honetan, neska batek beste bat ezetuten dau bus geralekuan. Egoera erromantiko lar idilikoa garatzen dauan begirada truke bategaz hasten da dana. Zelan aldatzen da persona bat ezezaguna izate-tik zure arretra zentroa izatera?

Precoz Arabako Sidalavak egin-dako film laburra da, ihesaren diagnostiko goiztiarraren garrantziaz konzienziatiko. Mikel,

24 urteko gazteak jakin dau oin dala hiru hilebete beragaz hartu-emon sexualak izandako persona batek positibo emon dauala GIBaren testean. Bildurrez baina jakinguraz Arabako Sidalavara joango da test azkarra egiteko.

Jorge Cadena kolonbiarrak zuzendutako *Flores del otro patio* filma, Kolonbiako Karibean girotuta dago. Filma queer ekin-tzaile talde baten atzetik dabil. Taldekoek ekintza performatibo bitxiak erabiltzen ditue eskualdea suntsitzen daben injustizien kontra burrukan.

Haiga Jappainek zuzendutako *La tentation du panda roux* filmak Annaren istorioa kontetan dau. Annak (34 urte) Mariagaz bizi dau maitasun perfektua, baina menopausia goiztiarraren zantzuak ikusten dituan, Annak ume bat egin gura dau ahalik eta azkarren.

DUNBA

Arteako eskolatik Lekeitiora

Arteako eskolako Haur Hezkuntzako 2. zikloko ikasleak

Arteako eskolako Haur Hezkuntzako 2. zikloko ikasle eta irakasleak Lekeitioko Trinkete barne-tegira joan ginan. Barnetegiko begiraleek hainbat ekintza prestatu euskuezan eta umeak oso gustura ibili ziran. Ekintzen artean Santa Katalina itsasargia bisitatu genduan. Euskal Herriko itsasargiak ezetu eta itsasontzi baten Lekeitioko portutik itsasargira bidaia egin genduan simulatzaile baten bitartez. Itsasargitik bueltatzerakoan jolasak egin genduzan eta eguna amaitzeko umeak jantzari eta kantari ibili ziran gaubelan.

Egunari amaiera emoteko eta jakinda ikasle askoren lehen

esperientzia izango zala etxetik kanpo, hain garrantzitsua dan momentu hau zaintzeko, taldean ipuin bat irakurri eta logeletara joan ginan. 3 urtekoek alkarregaz lo egin eben euren irakasleagaz batera, eta 4 eta 5 urtekoak beste bi logeletan banandu ginan irakasleakaz batera. Lo gitxi egin arren itzel pasau genduan.

Hurrengo goizean "3-4 ordu" mailetak prestatzen egon eta gero (kar, kar, kar), gosaldia eta gure azken ekintza egitera joan ginan. Bidean ginoiazala, ikastetxeek antolatutako Korrika etorraila ikusi eta han sartu ginan euskerea aldarrikatzen. Korrika egin eta gero, Lekittarra arraun taldera joan ginan gure azken ekintza egitera. Hasikera baten uste genduan,



adina dala eta, azalpena eta instalazioak erakustea besterik ez genduala egingo. Eta hor gure sorpresa! Arraunlari bihurtu ginan

goiz haretan. Portutik urten, eta itsasotik buelta bat emon genduan. Bitartean, patroiak eta bere laguntzaileak, arraun mundua-

ren inguruko jakintzak, istorioak, abestiak... erakutsi euskuzan. Abentura ezin hobea izan zan eta asko disfrutau genduan.

Hain esperientzia polita izan da Lekeition bizi izan doguna, irrikitan gagozala hurrengo prestatzen hasteko. Bide batez, eskerrak emon gura deutseguz Trinkete aterpetxean lan egiten daben guztiei (begirale, ardura-dun, sukaldari, garbitzaile...) tratu ikaragarria jaso gendualako eta lan bikaina egiten dabelako. Bihotzez, mila esker eta laster arte!



AGENDEA

MAIATZAK 2
AREATZA

19:00etan, *Gotzakak, migrazioa, emakumea eta haurtzarora* Aita Mari eta Ongi Etorri Errefuxiatuak taldeen berbaldia. Udaleko areto nagusian.

Hilaren 10era arte, Areatzak Haurreskolan 2024-2025 ikasturteko urri lehenengoan hasteko diran umeen izen-emotea.

ARRATIA, UBIDE, ZEBERIO

Abuztuaren 31ra arte, Gorbeiko Nire txoko kuttuna Argazki Lehiaketea. Argazkiak Instagramera igoz #MiRinconFavorito, #GorbeiaEuskadi eta #CorazonVerdeDeEuskadi hastag-akaz.

Arratia futbol taldeak 2024-2025 denporaldirako izen-emote epea zabalik bagilaren 3ra arte. Informazio gehiago 688 777 117 eta 94 631 57 04 telefonoetan edo cdarratia@cdarratia.com helbide elektronikora idatzita.

BEDIA

16:30etik 19:30era, hilaren 3ra arte, maiatzaren 18an izango dan Urduñako Museo Etnografikorako txangorako izen-emotea liburutegian.

DIMA

18:30ean, Zineforum intergenerazionala *Emakume eta gizonen arteko berdintasuna*. Eskolako kamarin.

IGORRE

Hilaren 8ra arte, Arantzarteren gaineko erakusketea. 50. urteurrena. Kultur Etxeko erakusketa gelan.

Euskera Plana diseinetako lan-mahai irekiak. 10:00etatik 12:00etara, Hezkuntza eta familia transmisioa; 18:00etatik 20:00etara, Kultura, aisialdia eta kirola. Izena aurretik emon labur.eus/igorrelan-mahaiak estekan.

LEMOA

Hilaren 6ra arte, 12 eta 16 urte bitartekoentzako Izaban bagilaren 24tik 28ra izango diran udalekuetarako izena emoteko epea zabalik lemoakogaztelekue@gmail.com helbidean.

ZEANURI

Hilaren 10era arte, Zeanuriko Haurreskolan 2024-2025 ikasturteko urri lehenengoan hasteko diran 2023-2024 urteetan jaiotako umeentzako izen-emotea zabalik Haurreskolan bertan, 94 673 97 25 telefonoan, zeanuri@haurreskolak.eus helbidean eta <https://sites.google.com/view/zeanurikohaurreskola/hasiera> estekan.

ZEBERIO

Hilaren 10era arte, Zeberio Haurreskolan 2024-2025 ikasturteko urri lehenengoan hasteko diran umeen izen-emotea. Hartu-emonetarako telefonoa 94 632 22 21.

MAIATZAK 3
AREATZA

19:00etan, Laburbira. Euskarazko Film Laburren XXI. Zirkuitua. Udaleko areto nagusian.

IGORRE

18:00etan, *Fantasiaren erreinua* zirku tailerren erakustaldia Lasarte Aretoran.

18:00etan, txirridularitza hastapen jardueren umeentzat. Abilezia ginkana, jolasak eta sorpresak. Sabino Arana 1en.

ZEBERIO

Santa Kurtze jaiak. 12:00etan, mezea eta erramu bedeinkapena; ostean

barauskarria; 18:30ean, jaien hasikerako txupina; 18:45ean, Tortilla Txapelketan izen-emotea; 20:00etan, tortillen aurkezpena; 20:15ean, jantza plaza; 21:00etan, sari banaketea eta ostean parrilladea eta musika; 22:00etan, suzko zezena.

MAIATZAK 4
AREATZA

Karpoko jaiak. Paella eta Gisadu Lehiaketak errekako paseoan; 09:30ean, Upo Galapan mendi lasterketea; 12:30ean, Areatzak Banda eta Bitartean Folk Taldea eskolako aterpean; 14:00etan, Paella eta Gisadu Lehiaketen aurkezpena udaletxeko arkupean; 15:00etan, bazkaria; 17:00etan, plastikuzko ahate lasterketea errekan; 18:30ean, Giza proba desafioa. Herritarren talde misto bi alkarren kontra; 20:00etan, Kittugaz kalejireia.

ARTEA

17:00etan, Solastalgia topaketak. Adrian Almazanen aurkezpena; *Baseriaren gainbehera*, hizlaria: Paz Moreno Feliu eta *Arratiatik bidai historiko-etnografikoa* hizlaria: Angel Larrea. Moderatzailea: Adrian Almazan. Herriko Bentan.

DIMA

15:30ean, Dimako II. Cross Country.

IGORRE

19:00etan, Zirkozaurren *Harreman* ikuskizuna Goiko Plazan (eguraldi txarra egin ezker, kiroldegian).

LEMOA

Arantzeko jaiak. 12:00etan, txupina iturrian; 14:45ean, bazkaria; 16:30ean, Briska Txapelketea eta Karretilla Krono Lasterketea; 20:00etan, Tortilla Txapelketea eta, ostean, DJ Plast.

ZEANURI

Arratiako Guraso Elkarteen III. Topaketa. 11:30ean, Undurragakako presara ibilaldia plazatik; 13:30ean, 6. mailako ikasleak bertotan; 13:45ean, Altxa Burua proiektuko konpromiso dokumentuaren sinatze ekitaldia; 15:00etan, bazkaria plazan; 17:00etan, jolasak eta merienda; 19:00etan, Berritzu taldeagaz erromeria.

ZEBERIO

Santa Kurtze jaiak. 10:30ean, mendi ibilbidea Santa Kurtzetik hasita; 13:00etan, herri-kirolak; 15:00etan, bazkaria norberak eroandakoagaz. Edaria, ogia eta kafea batzordeak; 17:30ean, kontzertua: Mani eta Iker; 18:00etan, jolasak eta txapelketak;



Neska gazte talde baten gaineko pelikulea zineklubean

Igorreko Zineklubak, Elena Trapéren *Blog* 2010eko pelikulea ekarriko dau maiatzaren 9an, 20:00etan, Igorreko Lasarte Aretora. Donostiako Zinemaldiko zuzendari barrien Zabaltegi Sailean aurkeztu zan.

Elena Trapé (Bartzelona, 1976), zine zuzendaria eta gidoilaria da: Bere beste pelikula batzuk, *Las distancias* (2018) eta *Los encantados* (2023) dira. Sara Gómez, Candela Antón, Irene Trullent, Lidia Torrent eta Oriol Puig dira, besteak beste, *Blog* pelikulako antzezleak.

Klase ertain-altuko, ondo hezitako, neska adimentsu, sentibera eta kontziente talde baten istorio harrigarria kontetan dau *Bloge*k. Plan sekretu bat eta helburu komun bat daukan gazte talde bat da, euren ustez helburu absolutua eta egia unibersala dana: emozino gogorrek biziteko beharra, besteengandik bereizten dituenak.

19:30ean, txokolata; 20:00etan, kontzertuak: Ilentia, Durundue, U7, Seveelrio, Satan Kurtze. Ostean, DJ Matxinada.

MAIATZAK 5
AREATZA

Karpoko jaiak. 10:00etatik 14:00etara, Ganadu eta Ekoizleen Azokea plazan; 13:00etan, kalejireia Eingo taldeagaz herriko kaleetan zehar; 14:00etan, Azokearen amaierea eta zozketea. Familia alkarteak taloak egingo ditu.

11:00etan, Gorbeia Euskadik antolatuta, ibilbide gidatua Areatzatik, Gudariaren plazan hasita. Izena alde aurretik emon 94 612 26 95 telefonoan edo gorbeialdea.com helbidean.

ARTEA

Solastalgia topaketak. 17:30ean, *Bidasoa 2018-2023* (Fermin Muguruza, 2023) dokumental emonaldia eta solasaldia Gari Garaialde eta Itziar Gomezegaz. Moderatzailea: Ignacio Mendiola. Herriko Bentan.

18:30ean, Arteako Jai Batzordeak antolatuta, jaietan herri jantza egiteko ensaioa gimnasioan.

IGORRE

12:00etan, *Mr. Frack* Xabi Larrearen ikuskizuna Goiko Plazako frontoian; 13:00etan, Eleder magoa udaletxeko plazan. (Eguraldi txarra egin ezker, kiroldegian).

17:00etan, zinea, *Kung Fu Panda*; 19:30ean, *La familia Beneton*.

LEMOA

08:00etan, Ganzabal Mendi Taldeak antolatutako goizeko urtekerea. Bizkargi eguna. Lemoako eskolak-Lemoatxa (363 m)-Bizkargi (555 m)-Zornotzako Larra auzoa. 20 km. Lemoako eskolatan.

ZEANURI

Zeanuriko Erroten XVII. ibilaldia. 08:30ean, izen-emotea plazan; 09:00etan, ibilaldiaren urtekerea plazatik.

ZEBERIO

Santa Kurtze jaiak. 12:00etan, desmontajea. Ostean, Konbidaduen bazkaria norbere etxean.

MAIATZAK 6
DIMA

17:00etan, Udalak eta Andraizeak antolatuta, Landaburuko eskilarak margozte, maiatzak 17, LGTBifobiaren kontrako nazinoarteko egunaren harira.

LEMOA

Kultura eta Memoria Astea. 10:30etik 12:30era eta 16:30etik 19:30era 10era arte, *Lemoa: Arratiako tranbiaren bihotza* erakusketea Kotxepin Kultur Etxean; 19:00etan, *Arratiako tranbiaren historia grafikoa* (1902-1964) liburuaren aurkezpena Kotxepin Kultur Etxean.

MAIATZAK 7
LEMOA

Kultura eta Memoria Astea. 18:30ean, *Bizkarsoro* filmaren proiektzioa eta berbaldia Kotxepin Kultur Etxean.

MAIATZAK 8
ARTEA

18:30ean, Hiria Antolatzeko Plan Orokorrara (HAPO) aurrerakinaren inguruko parte-hartze saioa: Natura eta kultura ondarea, azpiegiturak eta ekipamentua. Kultur Etxean.

LEMOA

Kultura eta Memoria Astea. 19:00etan, *Hablemos de la salud mental de los jóvenes* berbaldia Kotxepin Kultur Etxean.

MAIATZAK 9
LEMOA

Kultura eta Memoria Astea. 18:00etan, eta 19:00etan, Arratiako Musika Eskolako ikasleen kontzertuak Kotxepinen.

09:30ean, Lemoatx Jubilatuta eta Pentsiodunen elkarteak antolatuta, Kantabriara urtekerea, Ruento eta Barcena Mayor bisitauz. Tailerretan.

ZEANURI

18:30ean, *Euskaldun egin gaituzten borrokak* berbaldia Kultur Etxean. Hizlaria: Ibai Atutxa Ordeñana, EHUKo irakaslea. San Isidro jaiak.

MAIATZAK 10
ARTEA

Solastalgia topaketak. 19:00etan, *Euskal Herriko proiektu desarrollisten mapea eta analisis* Leire Urkidi eta Alvaro Campos-egaz solasaldia. Moderatzailea: Oihane Garcia. Herriko Bentan.

19:00etan, Laburbira. Euskarazko Film Laburren XXI. Zirkuitua. Kultur Etxean.

DIMA

19:00etan, 5. mailako ikasleek gazteentzako (DBH1tik DBH4 bitarteko ikasleentzat) Ingurumenaren inguruko aurkezpena ludotekan.

IGORRE

09:00etatik 14:00etara eta 15:30etik 20:45era, bagilaren 17ra arte, *Hipocentros: sismos plásticos* erakusketea, Kultur Etxean.

20:00etan, Zinegoak Hedapena. *Manting, Dena asmatuta dago; Analog Z Love, Precoz, Flores del otro patio* eta *La tentation du panda roux* filmak Lasarte Aretoran.

LEMOA

Kultura eta Memoria Astea. 17:00etan, Arratiako Berbalagunek antolatuta, talo tailerra Kulturguneko plazan; 20:00etan, Zirkozaurre konpainiaren *Harreman* zirku eta euskal musika tradizionalako ikuskizuna Elizondoko plazan.

UBIDE

19:00etatik 20:30era, Ubidestroirako dorsal banaketea.

MAIATZAK 11
AREATZA

Laminete Gazteetaren II. urteurrena. 13:30ean, marianoak biniloen soinuak girotuta; 15:00etan, gazte bazkaria; ostean, bingoa; 19:30ean, poteo musikatua herrikit; 22:00etan, kontzertuak: Akëer eta Arratians taldeak. Ostean, Gehibi Dja.

ARTEA

Solastalgia topaketak. 17:00etan, *Lurralde Antolakuntza Planen gaineko begirada feminista bat* hizlaria: Aida Lopez Urbaneja; *Lurralde antolakuntza eta hizkuntzaren auzia* hizlariak: Elixabete Urzelai eta Arritxu Zelaia. Moderatzailea: Zesar Martinez. Herriko Bentan.

DIMA

Dantzari Eguna. 11:00etan, jantzariei harrereia eta albokariak; 11:30ean, kalejireia zanpantzararak; 12:30ean, ekitaldia; 13:30ean, otzarearen zozketea; 14:00etan, jantzariren bazkaria; 15:00etan, bazkaria; 15:30etik 17:30era, Zurezko egur jolasak; 17:30etik 19:30era, Etxebarria aita-emea trikitalariak; 19:30ean, txokolata.

IGORRE

20:00etan, Bitartean Folk Taldea eta Areatzak Banda Lasarte Aretoran.

LEMOA

Lemoakustik Fest. 12:00etan, Arratia Musika Eskolako kontzertua Kotxepin Kultur Etxeko atzeko landan; 13:00etan, Jon Moma lorategian; 14:00etan, Lorelei Green landan; 17:00etan, Maria Vaquerizo lorategian; 18:00etan, Aimar lorategian; 19:30ean, The Last Hidden Fox landan.

UBIDE

Ubidestroi. 07:30etik 08:45era, dorsal banaketea; 09:00etan, lasterketearen hasikerea; 12:00etan, puzgarriak; 16:00etan, sari banaketea; 16:00etatik 19:00etara, Orkresta elektrotzarangea; 17:00etan, Ubidestroitxo umeen lasterketea; 20:00etatik 23:00etara, erromeria. Egun osoan zehar, taloak, txosnea eta pastelak.

ZEANURI

San Isidro jaiak. 10:00etatik 14:00etara Abere, Artisan eta Nekazal Produktuen Azokea. Bertan, gaztaia egingo dau Enrike Etxebarriak; artile tailerak Rakel Santamariak; kodaina pikau Pabi Astondoak; artxo txuleta dastaketea eta perratokia ikusgai ongongo da 11:00etatik 13:00etara eta bideo proiektzioa ongongo da. Goiz osoan zehar, herriko txistulariak plaza inguruan; 12:00etan, herri-kirolak. Harri zulatzaileen erakustaldia plazan; 13:00etan, Abere Lehiaketako sari banaketea plazan; 16:30ean, pelota partidua: Bizkaiko gaztetxoaren semifinalak; 19:00etan, Orkresta elektrotzarangea; 22:30ean, Gautegun taldeagaz erromeria eta ondoren DJ La Traka.

MAIATZAK 12
AREATZA

19:00etan, The Trouble Notes taldea TQCn.

ARTEA

Solastalgia topaketak. 17:30ean, *Bizitza oso bat* Arratiako lagunak solasaldia. Moderatzaileak: Alasne Artetxe eta Jon Urutxurtu. Herriko Bentan.

IGORRE

17:00etan, zinea, *Johnny Puff: mision secreta*; 19:30ean, *Los niños de Winton*.

LEMOA

Kultura eta Memoria Astea. 09:30ean, Lemoatxa 1937 PR-BI56 mendi martxea, 1936ko Gudariaren parketik urtenda.

ZEANURI

11:00etan, Gorbeia Euskadik antolatuta, Undurragakako urtegiari bueltea. Plazan.

MAIATZAK 15
ARTEA

18:30ean, Hiria Antolatzeko Plan Orokorrara (HAPO) aurrerakinaren inguruko parte-hartze saioa: etxebizitza eta jardueren ekonomia. Kultur Etxean.

ZEANURI

San Isidro jaiak. 11:30ean, egurrezko jolasak umeentzat plazan; 12:00etan, mezea San Isidron; 13:00etan, Arrikibar jantza taldearen emonaldia herriko txistulariak; 18:00etan, Idi-probak. Jose Luis Ormaetxeren (Zamudio), Gotzon eta Lander Plazaren (Maruri) eta Iñaki Vidaurrazagaren (Zamudio) idiak.

KOMIKIA

Kailo Ren



IRAGARKI LABURRAK

DANERIK

LONJEA ALOKATZEN DOT

Igorreko Olabari auzoan dagoan lonja bat alokatzen dot kontratupean. Informazioa, 647 239 449 telefonoan.

GARAJEA ALOKATZEN DOT

Alkarren ondoan dagozan garaje bi alokatzen dira Igorreko Elexalde kaleko 47 zenbakian, On Egin-en ondoan. Biak batera ala banaka alokatu daitezke. Batera egin ezkerero prezioa egingo da. Interesdunek deitu 615 723 646 telefonora.

GARAJE PARTZELEA ALOKAIRUAN

Garaje partzela bat alokatzen da Igorren, anbulategi atzeko parkean. Interesatuak 629 307 400 telefonora deitu.

GARAJEA ALOKATZEN DOT

Garajea alokatzen da Igorreko Elexalde kaleko 56 zenbakian. Eleiza aurrean. Telefonoa: 94 631 60 22.

ELONDO EGURRA SALGAI

Elondo egurra saltzean da. 40 metro karratu. Neurriak: 1,50 metro luzeera, 7 cm zabalera eta 1,07 cm lodiera. Prezioa: 20 euro metro karratua. Interesdunek 630 363 971 telefonora deitu.

YOGA ETA COACHING

Gorputza indartu eta flexibilizatu, zure amesetako etorkizuna sortu, zure barne bakea topatu eta bizitza orekatu. Online klaseak. Kontakua: 672 873 452 (Nerea).

LANA

FRANTSESEKO KLASEAK ONLINE

Adin eta maila guztiak. Bakarka zein taldeka. Frantses filologian graduatua. Interesdunek deitu: 610 374 854 (Nerea).

KLASE PARTIKULARRAK EMON ETA UMEAK ZAINTZEAN DODAZ

Lehen Hezkuntzako umeei ingeles eta beste ikasgaietako eskola patikularrak emoten deutesdaz, martitzen, eguen edo bariku arrastietan. Umeak jagoteko be prest nago egun horreetan. Interesdunek deitu 650 842 292 telefonora.

Zeozter saldu, erosi, alokatu, trukea egin, behar edo behargin bila bazagoz, bidali asko jota 25 berbako mezu bat begitu@begitu.eus helbidera. Mezuak doban dira.

Begitu-lagunen txokoa



Zenbaki honetako saridunak:

1 Dimako Baltzola jatetxeak emondako astegiaren menua lagun birentzako.

Esti Garcia (Areatza)



2 Igorreko Kultur Etxeak emondako bina sarrera *La familia Beneton* filmarako.

Joseba Olibares (Zeanuri)
Artabe Erdozia (Artea)



Zerturen argitalpenak jasoko dozuz, zozketetan sartuko zara. BEGITUK 22 urte eta ehundaka lagun.

94 673 90 13/649 979 115 | www.begitu.eus | begitu@begitu.eus

Dia %
PEDRO
AUTOZERBITZU
Sabino Arana, 35 48.140 Igorre
Tel. 94 631 15 26

KIRRU
ILEAPAINDEGIA
ROSANA eta ROSER
-
SABINO ARANA 38
IGORRE
-
Tlf. 94 631 92 00

ASEGURUAK: **ZUZENBIDE**
AUTOAK ETXEBIZITZAK
AHOLKULARITZA: LAN ZUZENBIDEA ZERGAZ KONTABILITATEA
DENDAK ISTRIPUAK BIZITZA...
Tlf. 94 673 71 41 - 94 673 70 55 - 94 612 11 96 - Faxa 94 612 11 96
Sabino Arana 3. behea - Igorre (Bizkaia)

BIXER
TABERNA
Beko kalea, 2 - Tlf. 94 631 73 65 - VILLARO

Jose Luis Corbacho
pintura lanak
Sabino Arana, 3. 3a
Igorre 48140 Bizkaia
94-673-70-87
609-79-40-54

begitu
eus



**AUTOMATIZAZIOKO ETA
ROBOTIKA INDUSTRIALEKO
GOI MAILAKO GRADUA**



**WEB APLIKAZIOEN
GARAPENEO GOI
MAILAKO GRADUA**



**GIZARTERATZEKO GOI
MAILAKO GRADUA**



**OINARRIZKO LH
ELEMENTU METALIKOEN
FABRIKAZIOA**



**OINARRIZKO LH INSTALAZIO
ELEKTROTEKNIKOAK ETA
MEKANIKOAK**



**MENDEKOTASUN EGOERAN DAUDEN
PERTSONEI ARRETA EMATEKO
ERDI MAILAKO GRADUA**



**FABRIKAZIO MEKANIKOKO
DISEINUKO GOI MAILAKO
GRADUA**



**FABRIKAZIO MEKANIKOKO
PRODUKZIOA PROGRAMATZEKO
GOI MAILAKO GRADUA**



**MEKANIZAZIOKO ERDI
MAILAKO GRADUA**



**INSTALAZIO ELEKTRIKO
ETA AUTOMATIKOKO ERDI
MAILAKO GRADUA**



ZULAI BAR

ARRATIAKO LANBIDE IKASTEGIA

Etorkizunerako bermea

www.zulaibar.net ☎ 94 673 91 16 AURREMATRIKULA: Maiatzak 6-24